


hh
hik hasi

**DBH Trokonizeko Waldorf eskolan
Jokoak eta animazioak programatzen
Hezitzaileak eta emozioak
'Ongi-etorri ikastolara' proiektua
Nola motibatu ikasleak
Tribuaren berbak
Angel Oiarbide**



ARRETA GOIZTIARRA

$$\begin{aligned}
 \heartsuit + m + a^2 &\rightarrow \heartsuit + \heartsuit + a^2 \\
 \heartsuit + \heartsuit + a^2 &\rightarrow \heartsuit + \heartsuit + a^2 \\
 \heartsuit + 88 &= 48 + 2 \cdot \left(\frac{11+2}{2}\right)
 \end{aligned}$$

TXOMINTXO ETA PERUTXO MAITEMINDUTA

TXOMIN ETA PERU MAGDALENA - IOSU MITXELENA

Perutxok eta Txomintxok jakin nahi dute zer demontre ote den maiteminduta egote hori, hain zoragarria omen dera. Neska-reulak binaka beti elkarrekin ibiltzea omen da.



ISPILUTXO

PELO AÑORGA - IOSU MITXELENA

Mutlak "rexa" delitzen diote eta horregatik, baurfua eta triste sentitzen da Kevin, oso triste, astoa baino tristeago, zeren bera ez da neska. Horregatik, joan da errebara, isplubxori gaitzera.



6-8
URTE



IKAZKINA OLENTZERO BIHURTU ZENEKOA

TRABI ARNAL - BELATZ

Bizen behin ikazkin bat, hartzea baino, ematea nahiago zuena. Behin batez, mendia utzi eta hirira jaitsi zen ikazkin hura...



KARTOIZKO KAJA

PADY REKALDE - EDER EIBAR

Langile batzuk iritsi dira etxera, apalafogi bat mantatzera; kartoizko kaja handi batean zaborren materiala, eta kaja hori beretzat gordetzen du Anartzek, jolasetarako tresna ezin hobea delako: balentzi bihurtzeko edo estraterrestreen espaziontz...



AURKIBIDEA

GAIA / 10

ARRETA GOIZTIARRA

Indarrean sartu dira EAEn Arreta Goiztiarrari buruzko dekretua eta protokoloa. Gaia mahai gainean jartzearekin batera hainbat zalantza sortu ditu hezitzaileengan eta gurasoengan. Zer aldatuko da? Nork esku hartuko du? Nori eragingo dio? Zertan? Auzi horren inguruan gogoeta egiteko jardunaldia antolatu zuen hik hasi-k azaroan. Prebentziorik onena haurrak ondo heztea dela azaldu zuten adituek.

ELKARRIZKETA / 18

IZASKUN TORRE

Waldorf pedagogian oinarritutako Geroa Eskola Trokonizen ireki zutenean ametsa besterik ez zena egia bilakatu dute: DBHra zabaldu dute eskola, Eusko Jaurlaritzaren itunpean. Bertako bi tutoreetarikoa bat —zientzia arlokoa— da Izaskun Torre. 14 urtez MUko Goi Eskola Politeknikoan aritu ondoren, erronka berriari ekin dio.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines

Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: Grafkk.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANtZA S.A.L

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2016-11-17).

Kopurua: 4.000 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Formazioa, hezkuntza-kalitatearen berme

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Arreta goiztiarra

18 ELKARRIZKETA

IZASKUN TORRE

“Askotan uste dugu gizakia burua bakarrik dela eta ume buru-handiak ari gara egiten”

26 ESPERIENTZIAK

Bideo-jokoak eta animazioak, ikasleek eurek sortuak

28 EKARPENAK 1

Hezitzaileen emozioak humanizatzeke bidean

32 EKARPENAK 2

Eskolan, kultura desberdinekin lanean

36 GALDEIDAZU

NEREA REDONDO OTAMENDI

Zer egin dezakegu irakasleok ikasleen motibazioan eragiteko?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Tribuaren berbak

42 ATZEKO ATETIK

Angel Oiarbide

IZEI

eta

HODEI

ZENBAKIAK

4

5

7

10



ESKU BATEAN 12 SAGAR
BADITUT ETA BESTEAN 5,
ZER DA DAUKADANA??



ESKU IZUGARRI HANDIAKI!



Amor

Formazioa, hezkuntza-kalitatearen berme



FORMAZIOAK, IRAKASLEEN PRESTAKUNTZAK BERMATUKO DU HEZKUNTZA-KALITATEA. BEREZIKI ZAILTASUNETAN DAUDEN UMEEN ONGIZATEA ETA HEZKUNTZA KALITATEA.

editoriala

Etorriko dira dekretuak, etorriko dira protokoloak, testak, eskalak, itemak, etorriko dira legeak, azterketak, errebalidak, etorriko dira politikariak, agintariak, teknikariak... eta hobetuko al dute hezkuntzaren kalitatea? Saihestuko al dute eskola-porrota? Bermatuko al dute umeen ongizatea? Eta bereziki, hobetuko al dute zailtasunetan dauden eskola-umeen ongizatea? Ez. Sinpleki, ez.

Egiteko manerak dira: Hezkuntzaren kalitatea kontrolaren, azterketen, errebaliden, presioen bidez hobetuko dela diote Madrilgo politikariek. LOMCEk ezarritako probak erabat zentralizatuta egongo direla jakin dugu azaro hasieran, Madrilek markatuko du zein ikasgairan azterketak egin behar diren Hegoaldeko gure eskoletan eta zein diren ebaluazio-irizpideak. Edukiei dagokienez, Batxilergoko errebalidaren % 80 Madrilek ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera izango da, eta DBHko errebalidan, oster, % 70. Eta berriro diogu, halako legeek, akaso, hobetuko dute hezkuntzaren kalitatea?

Egiteko manerak dira: Formazioari garrantzia ematea, lan-astearen ondoren zapatu batean zazpi orduko formazioa jasotzea da hezkuntzaren kalitatea bermatzeko beste manera bat. Madrilen errebaliden % 80 kontrolatuko zutela egosten ari ziren bitartean, arreta goiztiarraren inguruan hik hasi-k antolatutako jardunaldietan formatzen ari ziren 600dik gora hezitzaile eta hezitzaile-gai. Horra irakasleen ardura, profesionaltasuna, erantzunkizuna.

Formazioak, irakasleen prestakuntzak bermatuko du hezkuntza-kalitatea. Bereziki zailtasunetan dauden umeen ongizatea eta

hezkuntza-kalitatea. Etorri eta joango baitira legeak, dekretuak eta protokoloak. Baina geldituko dira haurrak, familiak, premiak, galderak, zailtasunak... eta geldituko dira irakasleak, eta geldituko prestakuntza, profesionaltasuna, eskarmentua. Hezkuntza-kalitatean inbertitu behar bada, utikan errebalida, protokolo, test, eskala, item eta Madrilek idatzitako legeak. Hezkuntza-kalitatea bermatzeko irakasleen formazioan inbertitu behar da, hemen eta orain.

Bi hizlariek, Euskal Herrian arreta goiztiarrean urtetan egin duten lanagatik prestigio handiko bi espezialistak aitortu zuten hik hasi-ren jardunaldietan hezitzaileen lanaren kalitatea dela arreta goiztiarraren prebentzio eragingarriena: “Arreta Goiztiarraren ikuspegitik, kalitatezko hezkuntzak sinets ezinezko onura dakarkio haurren osasun mentalari eta garapenari”, adierazi zuen Xabier Tapia psikologo klinikoak. Antzeko iritzia azaldu zuen Alvaro Beñaran psikomotrizistak: “Hezitzaile izatea erantzunkizun handi-handia da, ez da objektu batzuekin aritzeko teknika bat, ez; hau pertsonekin egiten den lan bat da. Batzuetan zailtasunak dituzten pertsonekin, sufrimendu handian dauden pertsonekin, eta guk, hezitzaile bezala, ezin dugu edozein modutan lan egin: guk egiten dugunak ondorio positiboak edo agian ondorio latzak izango ditu, hau ez da metodologia kontua, hau ez da protokolo kontua, hau pertsonen arteko gauza bat da. Hezitzaileak tresna bat behar du metodologia, protokolo eta dekretuen gainetik: Formazioa”.

Egiteko manerak eta manerak daude. Hezkuntza kontu serioegia da Madrilgo politikarien esku uzteko.

“Filosofia diziplina transbertsala da, eta oso orokorra. Horrek ematen dizkio gaitasun batzuk beste diziplinan ez daudenak. Ezagutza mota guztiak itsasontzi batean doaz, etengabe berritzen. Baina, nora doa itsasontzi hori? Zergatik utzi dira ikerketa batzuk eta ez besteak? Galdera horiek egiteko ahalmena du filosofiak”

Agustin Arrieta



EAE-KO 250 IKASLEK BAINO GEHIAGOK DEITU DUTE LAGUNTZA TELEFONORA, BULLYING-AGATIK

Adin txikikoak laguntzeko Zeuk Esan telefono zerbitzuaren aurtengo datuak eman ditu Eusko Jaurlaritzak. 2015arekin alderatuta, hamar hila-beteotan % 65 igo dira deiak. Guztira 608 haur eta gaztek deitu dute, horietatik % 42k eskola-jazarpenari lotutako gaietz laguntza eskatzeko. Hala, 250 haur eta gaztek baino gehiagok deitu dute 116111 telefono zenbakira bullying-arekin lotutako gaiengatik laguntza eskatzeko. Deitzaileen kopurua asko hazi den arren, mezu lasaigarria eman nahi izan du Eusko Jaurlaritzak: euren esanetan, ez da lehen baino kasu gehiago ematen, baina kontzientziatuago eta sentsibilizatuago dago gizartea.

LANBIDE HEZIKETAN EUSKARAK DUEN PRESENTZIA IGO EGIN DA

Inoizko presentzia handiena du euskarak Lanbide Heziketan. 11.400 ikasle baino gehiago ari dira B eta D ereduetan ikasten, duela hamar urte halako bi. Nabarmen hazi arren, ordea, ez dira ikasle asko: LHko estudianteen % 30 dira. Eragileen balorazioa nahiko bateratua da: aurrera egin da, baina bide gehiena egiteko dago.

LOMCE HEZKUNTZA LEGEKO ERREBALIDEN AUZIA EZBAIAN



PPren hasierako asmoa LOMCE legearen DBHko nahiz Batxilergoko errebalidak ahalik eta gehien Madrildik kontrolatzea bazen ere —Batxilergoko errebalidaren % 80 eta DBHkoaren % 70—, oposizioak elkar hartu du Kongresuan eta errebalidak atzera botatzeko lege erreforma tramitatzen hasi da. Azkenean, adostasun keinu gisa, proposamen berri bat egin du PPK. Hala, Espainiako Gobernuak lege dekretu bat ari da prestatzen DBHko eta Batxilergoko probei buruz, eta aldaketa handiak ekarriko ditu. Errebalida izateari utziko diote amaierako probek: ez dituzte ikasle guztiek egin beharko, ez dira titulua lortzeko gako izango, eta ez dute irakastaldi osoa ebaluatuko. DBH amaierako proba borondatezkoa izango da; “lagin bat” hartuko dute emaitzak aztertzeko. Batxilergoko probak selektibitatearen tokia hartuko du, eta haren antz handia izango du, bai ikasgaietan bai puntuatzeko moduan.

EHUN IRAKASLE LANPOSTU AIREAN JARRI DITU NAFARROAKO AUZITEGIAK

Euskarazko ehun irakasle postu salatu zituen Afapna sindikatuak; auzitara jo zuen euskarazko irakasle postuak legez kanpokoak zirela argudiatuta, eta arrazoi eman dio auzitegiak. Kasua irabazi duen arren, orain ez du lanpostu horiek kentzerik nahi sindikatuak, eta azaldu du ez duela asmorik sententzia hori exekuta dadin eskatzeko. Lasaitasuna eskatu du: “Ez badago beste urratsik, inork ez du ondoriorik jasango”. Gobernuak, ordea, berretsi du helegitea jarriko diola epaileari, airean geratu baitira postu horiek. Izan ere, udan egin zituzten oposizioak, eta lanean hasiak daude postuak eskuratu zituzten irakasleak.

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

HEZKUNTZAREN ARLOAN 'EFQM' AITORPENA EMATEKO AHALMENA LORTU DU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK

Eusko Jaurlaritzak EFQM aitortpena eman ahal izango die, bere kudeaketa-eredua erabiltzen duten Lanbide Heziketako ikastetxeei eta hezkuntza-sistemako gainerako ikastetxeei. Europa osoan lehendabiziko Gobernua da ahalmen hori eskuratu duena, Kalitatearen Kudeaketarako Europako Fundazioarekin (EFQM) akordioa lortu ostean. Kudeaketaren bikaintasuna lortzeko, azken hiru hamarkadetan egindako ibilbidean oinarritu da Eusko Jaurlaritza. Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak azaldu bezala, ibilbidea 90eko hamarkada amiera aldera hasi zen, zerbitzuen kalitatea ziurtatzeko ISO 9001 arauan oinarritutako kudeaketa-sistema bat ezarriz. Gero, EFQM eredua hartu zuen kudeaketaren bikaintasun-erreferentzia gisa, esparru propioa lortzeko bidean aurrera jarraitzeko.



Euskal Harriko
ONGizatearen GIDA
Hazi Hezi

GIDA

Hazi Hezi

aldizkariak haurren osasunean onura eragiten duten zerbitzu kualifikatuak

ONGizatearen GIDA

berrian jasoko ditu. Bertan agertu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan.

Harremana: gida@hikhasi.eus



EUROPAKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNAREN FOROA EGINGO DA DONOSTIAN ABENDUAREN 15 ETA 16AN

Donostiako Kursaal jauregian ospatuko da abenduaren 15ean eta 16an Europako hizkuntza-aniztasunaren foroa, Donostia 2016 eta Unesco Etxeak elkarrekin antolatu duten jardunaldia. Xedea da hizkuntza gutxituen garapenean eragiten duten faktoreak aztertzea eta hauei buruz eztabaidatzea. Goi mailako hizlariak bilduko ditu foroak eta lau atal nagusitan banatuko dituzte gaiak: Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa; Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Karta eta Europako hizkuntza politika; Hezkuntza eleaniztuna; eta UNESCOren Munduko Hizkuntzen Atlas berria. Abenduaren 17an, berriz, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa aurkeztuko da. 1996an Bartzelonan onartutako Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala du oinarri, eta berorri garatzeko sortu da.



EUROPAKO
HIZKUNTZA-ANIZTASUNAREN
FOROA
ABENDUAK 15-16
KURSAAL - DONOSTIA

HEIKE FREIRE PEDAGOGOAREKIN TEKNOLOGIAREN ETA AUTONOMIAREN INGURUKO BI TAILER ANTOLATU DITU ILTZARBEKO UR TANTA ESKOLAK

“Familian teknologia nola kudeatu” eta “haurren autonomia” izenburupean bi tailer egingo dira urtarrilaren 14an eta 15ean Iltzarbeko Ur Tanta eskolan, Heike Freire pedagogoak eta *Cuadernos de Pedagogia* aldizkariko zuzendaria gidatuta. 9:30etik 13:00era eta 14:30etik 18:00etara izango dira tailerrak. Abendutik aurrera izena emanez gero, tailer bakarra egitea 90 € kostatzen da; biak egitea, berriz, 160 €. Matrikula egiteko edota informazio gehiagorako 685796578 telefono zenbakira deitu daiteke edota urtantaeskola@hotmail.com helbidera idatzi.

‘NEGUKO HAUR KANTAK’ CD BERRIA ARGITARATU DU KURKULUXETAN ELKARTEAK

Negurekin batera Olentzero etortzen da Euskal Herriko haurren etxeetara, baina horrez gain, historikoki, solstizioa, urte amaiera, eguberria... ere ospatu izan dira hainbat txokotan. CD honetako abesti guztiak sinesmen horietan daude oinarrituta, baina “jite moderno, alai eta dibertigarri batekin jaso ditugu, betiko soinua eta gaurko estiloak uztartuz”. 14 abestiz osaturiko CDa da *Neguko Haur Kantak*: 3 abesti herrikoiak dira eta beste 11 berriak. Bilboko Kurkuluxetan elkarteak ekoitzi du CDa eta musika eta letrak Itxaso Azkonarenak, Koldo Zelestinorenak eta Joserra Gutierrezenak dira. 10 eurotan erosi ahalko da Durangoko azokan (Erroa argitaletxean) edota Bilboko Kafe Antzokian (Gabriel Aresti euskaltegian).

AXPI-REN MARRAZKIAK ‘HIK HASI’ ALDIZKARIAN

hik hasi aldizkariaren 213. zenbaki honetatik aurrera Ainara Azpiaz *Axpi* marrazkilariaren orri bateko lana argitaratuko da. Izei eta Hodei pertsonaien pasadizoak kontatuko dira aldizkariz aldizkari, hezkuntza arloko profesionalentzat gertukoak izan daitezkeen gertaerei umore puntua jartzeko.

HIZPIDE IZANGO DA

IREKITA DAGO FINLANDIARA EGINGO DEN HEZKUNTZA-BIDAIA IZENA EMATEKO EPEA; HARPIDEEK DUTE LEHENTASUNA



2017ko apirilaren 17tik 22ra, Finlandiako hezkuntza-sistema ezagutzeko bidaia pedagogikoa antolatu du Hik Hasik. Finlandiako hezkuntza-marko orokorraren berri jasotzeaz gain, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako hiruzpalau zentro berritzaile ikusteko eta bertako irakasleekin egoteko aukera izango da. Horrez gain, unibertsitatea ere bisitatuko da, irakasleen formazioa nolako den ezagutzeko. Izena emateko epea irekita dago jada eta *hikhasi.eus* webgunean egin daiteke.

Hezkuntza-bidaiaiko parte-hartzaileen kopurua mugatua da: 40 pertsona joan daitezke gehienera. Beraz, izena ematen dutenen artean, *hik hasi* aldizkariko harpidedunek izango dute lehentasuna. Harpidedunei 1.400 € kostako zaie bidaia; harpide ez direnei, berriz, 1.450. Prezio horretan, ondorengo gastu hauek guztiak daude sartuta:

- Hegaldia: Bilbo-Helsinki joan-etorria.
- Hotela, gosariak eta bazkariak (afaria nobere kontura izango da).
- Hitzaldietako areto-alokairua.
- Eskolak eta unibertsitatea bisitatzera joateko autobus-zerbitzua.
- Hitzlariak, eskoletako eta unibertsitateko bisitak eta bisita horietarako bi gida finlandiarrak (eskolak bisitatzeko 20ko bi talde egingo dira eta talde bakoitzarekin gidari bat joango da).
- Itzultzaileen lana (finlandieratik euskararako bi itzultzaile, 20 kideko bana).
- Bidaia-asegurua.

* **Oharra:** 2017ko urriaren 11tik 15era Reggio Emiliara egingo da bidaia pedagogikoa.

EBALUAZIOAREN INGURUKO MONOGRAFIKOA ARGITARATU DU HIK HASIK

Ebaluazioa ulertzeko moduan ikuspegi berri bat proposatzeko “Ebaluazioa Haur Hezkuntzan: paradigma aldaketa” izeneko lana prestatu dute Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko Alexander Barandiaran eta Iñaki Larrea irakasleek. Ikaslea ebaluatzen duen paradigmatic testuingurua ebaluatuko duen paradigmarara nola igaro aztertzen dute bertan. Monografiko formatuan eman du argitara Hik Hasik. Durangoko Azokan prezio berezian —9 €— erosi ahalko da Hik Hasiren stand-ean. Gainontzean *hikhasi.eus* webgunean egongo da salgai 12 eurotan. Harpidedunei doan banatuko zaie etxera abenduko aldizkariarekin batera, eta harpidedunen batek beste ale bat nahiko balu 8 eurotan eskuratu ahalko luke.





Indarrean sartu dira 'Arreta Goiztiarreko Esku-hartze integralari buruzko dekretua' eta Eusko Jaurlaritzak prestatutako 'Haurraren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa: arreta goiztiarra hezkuntzaren baitan', eta gaia mahai-gainean jartzearekin batera hainbat zalantza sortu ditu hezitzaileengan eta gurasoengan. Zer aldatuko da? Nork esku-hartuko du? Nori eragingo dio? Zertan?

Xabier Tapia psikologo klinikoak Arreta Goiztiarraren argi-ilunei eskaini zien hik hasi-k antolatutako udazkeneko jardunaldietako sarrerako hitzaldi nagusia. Prebentziorik egokiena haurrak ondo heztea dela azaldu zuen, eta test, eskala eta antzeko tresnei protagonismoa eman beharrean, profesionali ematearen aldeko azaldu zen.

GAIA:

ARRETA

GOIZTIARRA

Haur txikientzako kalitatezko hezkuntza

Arreta goiztiarra modan dago. Hala uste du Xabier Tapiá psikologo terapeutak. Modan, eskolek amu erakargarri gisa erabiltzen dutelako: “Edozein haur, jenio bat izateko gai da eta gurasoen eta hezitzaileen erantzunkizuna da hala suerta dadin, horretarako eskaintzen ditugu estimulazio goiztiarreko klaseak”. Eta modan, baita ere, hitzetik hortzera dabilelako Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratu den Arreta Goiztiarreko Esku-hartze integralari buruzko dekretua eta indarrean sartu delako Hezkuntza Sailak prestatutako *Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa: arreta goiztiarra hezkuntzaren baitan*. Psikologo kliniko eta Altxa kabineteako kideak ikuspegi kritikotik begiratu die dekretuari eta protokoloari, eta onurak nola arriskuak nabarmendu zituen hik hasi-k gaiari eskaini zien jardunaldietan **Arreta Goiztiarra: argi-ilunak** hitzaldian, azaroaren 4an eta 5ean Bilbon eta Donostian, hurrenez hurren. Dekretu eta protokoloen gaintik hezitzaileen profesionaltasuna ezarri zuen zailtasunetan dauden haurrei laguntzeko berme gisa. “Tresnei edo eskalei protagonismoa eman beharrean, profesionali ematearen aldekoa naiz, gurasoez gain, hezitzaileak direlako ume bakoitza ondoen ezagutzen dutenak. Profesionalak dira, sentiberak, formazioa dute eta eskarmentua. Bere lanean konpetenteak beraz. Nor beraz, berauek baino konpetenteago arazoak detektatzeko, “baheketa” baino behaketa lana egiteko”.

Hasteko, historia pixka bat

Historiari erreparatuz hasi zuen bere hitzaldia Tapiak. Arreta goiztiarraren aurrekariak estimulazio goiztiarrean topa ditzaiegu. Estimulazio goiztiarraren hastapenak Estatu Batuetan topatu behar dira –hizlariak azaldu zuenez–, 60-70eko hamarkaden bueltan, “adimen urriko haurren eta arazo biologikodunen tratamendu gisa erabiltzen hasi zirenean”. Estatu mailan, aldiz, 1980. hamarkadaren inguruan kokatu izan da praktika honen hasiera. Gaztelaniazko “estimulación precoz” kontzeptuaren ostean, “estimulación temprana”rena etorri zen, lehenengoak eduki zezakeen presio kutsua baztertzearren. “Izan ere “precoz” hitzak, umearen bilakaeraren prozesu normala, komeni baino gehiago azkartzera bidera zezakeela eta, “estimulación temprana” kontzeptua erabiltzen hasi zen gehiegikeriaren zantzua eta zentzua kentze aldera”. Aldaketak aldaketa, Tapiaren aburuz, sinonimoak bailiran erabiltzen dira gaur egun ere bi kontzeptu horiek. Gerora etorri zen **“Arreta Goiztiarra”** (edo atención temprana) kontzeptua, 2000.ean argitaratutako **Liburu Zuria-ekin** batera, lehen aipatutako bi kontzeptuei zuzendutako kritika zorrotzak zuzentze aldera.

Termino berriarekin, **“Har-eman”** kontzeptuak hartu zuen protagonismoa aldebakarreko “estimulazioaren” ordeiz. Bigarrenik, **gurasoak eta familia**, lanaren jomuga eta pro-

GAIA:

ARRETA GOIZTIARRA

Haur txikientzako kalitatezko hezkuntza

tagonista zuzenak bihurtu zituen, eta hirugarrenik, haurren **globaltasuna** “ozen” aldarrikatu zuen.

Dokumentu hura, aurrerapauso erabakigarria izan bazen ere, Tapiaren arabera nahasketa ez da nahi beste argitu eta gaur egun, Arreta Goiztiarrean alde handia dago batzuen eta besteen ikuspegien eta jardueren artean. Nahaste honen aurrean, profesional bakoitzak bere buruari “apaltasuna, zuhurtzia eta etika profesionala” eskatu beharko lizkioke, psikologoaren ustez. “Arreta Goiztiarraren arloan haur txiki-kien sufrimenduarekin dihardugunez, zenbat eta txikiagoak izan haurrak eta larriagoak arazoak, orduan eta zorrotzagoa beharko luke gure etika profesionalak”.

Dekretua

Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko Esku Hartze Dekretua begi onez ikusten du Tapiak gaur egun gaiaren inguruan dagoen anabasa argitzera baldin badator. Nahasmendu horren aurrean argitasun apur bat jartzen hasteko arreta goiztiarraren eremua ulertzeko bi plano proposatu zituen Tapiak: eremuaren ulerkera zabalak batetik, eta ulerkera mugatua, bestetik. Dekretuak **eremuaren ulerkera zabalak** erabiltzen duenean osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte zerbitzuen arloetan Arreta Goiztiarraren eremuan egiten diren esku-hartzeak ditu kontuan. Ulerkera zabalak baditu alde onak adituarentzat; hauek nabarmendu zituen: batetik, haurtzaro goiztiarrari ematen zaion garrantzia; bigarrenik, arloek eremu honetan duten ekarpenaren aitorpena;

hirugarrenik hiru arloen arteko koordinatze saiakera, eta, azkenik goi mailako eta berariazko formazioaren beharren aitorpena eta zehaztapena.

Baina ulerkera zabal horrek baditu bere mugak eta eragozpenak: “Lehenik, eta behin eremuaren zabalatasuna, kontzeptuaren esanahiaren zehaztasuna bera galarazi lezakeena. Bigarrenik, Haur Hezkuntzako profesionalengan izan ditzaketen ondorioak. Zer egiten ari dira bada Arreta Goiztiarraren izenean? edo, zer ez? edo zer egin beharko lukete?”. Galdera hauen inguruan, hezkuntzako hainbat profesionali entzunda, bere formazioan hutsune edo gabeziaren bat legokeenaren sententzia sumatzen du hizlariak: “Arreta Goiztiarrean ez gaude prestatuta”, edo, “eremu ‘berri’ honetan ez daukagu nahikoa formaziorik”. “Ez dut uste –azaldu zuen Tapiak- Haur Hezkuntzako profesionalak Dekretuaren aurretik egiten zutenaren eta Dekretu ostean egiten dutenaren artean alde handirik dagoenik. Eta dekretuak dion bezala, lehen arreta goiztiarra lantzen bazuten, orain ere bai; lehen gauza baziren, orain ere bai. Orduan, nondik nora prestakuntza gabeziaren sententzia? nondik nora hainbaten artean, arlo berri honi dagokionean behintzat, sortu den gaitasun faltaren ustea?”. Psikologo terapeuta iritzi garbia da: “Haur Hezkuntzako profesionalak ez dute inolako gabeziarik arlo honi dagokionean”.

Arreta Goiztiarraren eremuaren ulerkera zabalak baztertzeko eta **mugatua** bakarrik onartzeak gauzak asko argituko lituzke, Tapiaren arabera. Era horretan, Arreta Goiztiarraren eremua osatzen duten erakunde eta profesional **bakarrak**, dekretuak berak aipatzen dituenak lirateke: *Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldeak (AGBT) eta Esku-hartze Taldeak*



GAIA: ARRETA GOIZTIARRA

(AGET). Bada eremu zabalean aipatzen diren beste arloak “ezinbesteko laguntzaile” izango lirateke. “Hala planteatuta uler daiteke, hezkuntzako profesionalak ez dutela zertan Arreta Goiztiarrean gaitasunik izan, ez zertan kompetenteak izan. Ez dira ez kompetenteak ez inkompetenteak. Ez da bere lana eta kitto. Hezkuntzako profesionalak hezkuntza dute bere lan eremu eta ardura eta ez besterik. Gutxi al da? Arreta Goiztiarreko profesionalen eta hezkuntzako lan eremuak, zereginak eta identitateak ondo berezita gero, bere arteko **lankidetzaz** mintza gaitzke, parez pare, kidez kide, eta ez, batzuk Arreta Goiztiarrean jakitun-adituak, eta besteak ezjakin gisa; denak jakitun, baina bakoitza bere arloan.”

Eremu horien arteko borondatezko lankidetzaz zehazten hasita, osasun arlotik mailegatutako **prebentzio lana –lehen mailakoa eta bigarren mailakoa–** aipatu zituen hizlariak. Prebentzio primarioa arazoak eta nahasmenduak ekiditean datza, hau da sortu aurretik neurriak hartzean. “Arreta Goiztiarraren ikuspegitik hezkuntzak prebentzioaren lehen maila honetan eskaini dezakeen laguntzarik preziatuena, haur txikiak kalitatezko hezkuntza litzateke, kalitateak nolakoa izan behar duen, bere ardura dela jakinik. Garbi gera bedi: **hezkuntzaren helburua ez da prebentzioa egitea, haurrak ondo heztea baino**. Kalitatezko hezkuntza bera baita prebentzio, eta ez nolana hiko!” Psikologoaren arabera, Arreta Goiztiarraren ikuspegitik, kalitatezko hezkuntzak “sinets ezinezko onura” dakarkio haurren osasun mentalari eta garapenari. “Arreta Goiztiarraren ikuspegitik beraz, hezkuntza-sistemak prebentzio primarioan eskaini dezakeen lankidetzarik bikainena, kalitatezko profesionalekin egin dezakeen kalitatezko lana da”.

Bigarren mailako prebentzioa arazoak ahalik eta azkarren detektatzean datza, eta Haur Hezkuntza arazoaren behatoki pribilegiatu bat den neurrian, Tapiarentzat bere ekarpena guztiz erabakigarria izan daiteke. “Arreta Goiztiarraren eta eskolaren arteko lankidetzaz zehazte aldera kontzeptu nagusi bat aipatuko nuke prebentzio sekundarioaren ikuspegitik: **arazoaren eta zailtasunen zeinu goiztiarrak**”.

Zeinu horien detekzio goiztiarrari buruz honako gogoetak plazaratu zituen: 1) Profesionalon, zuon sentiberatasuna eta eskarmentua dira zeinu horiei erreparatzeko tresnarik azkarrenak, zorrotzenak eta eraginkorrenak. 2) Umearen **ondozari** erreparatu behar zaio lehenik, bi adierazpide nagusi dituen bere sufrimendu psikikoari: gorputza eta harremanak. Diagnostikoak etorriko dira baina diagnostikoak bezain garrantzitsua edo agian garrantzitsuagoa, haur

ahulen detekzioa lehenbailehen egitea da, gehien kezkatzen gaituzten ume horiena hain zuzen ere. 3) Detekzioak ez du profezia esan nahi. “Ume honek lanak emango dizkizu, halakoa aterako zaizu...” “esan nizun nik...” 4) Zuhurtzia handienaren beharrenek adibiderik nabarmenenetakoa autismoa da. 5) Behin eta berriro: detekzioa zenbat eta goiztiaragoa, orduan eta handiagoak behar dute izan sentiberatasuna, etika, zuhurtzia eta formazioa.

Tapiaren arabera badira, duten larritasunagatik, hiru nahasmendu, lehenbaileheneko detekzioa eskatzen dutenak: Garapenaren Nahaste Orokortuak, depresioa goiztiarrak eta portaera arazo goiztiarrak.

Haurren garapenaren jarraipenerako protokoloa

Dekretuaz gainera Jaurilaritzaren Hezkuntza Sailak prestatutako **Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloaz** hitz egin zuen Tapiak, bigarren mailako prebentzioan bete-betean kokatzen dena. Protokoloaren hainbat gauza aipagarriren artean honako hauek azpimarratu zituen: 1. eskolaren barruan detekzio goiztiarrari ematen dion garrantzia; 2. detekzioa gauzatzeko proposatzen duen metodologiaren zehaztasuna; 3. arazoak identifikatzeaz gain proposatzen duen esku-hartze edo interbentzio plana. Eta honako zortzi puntu hauei buruzko gogoeta kritikoak luzatu zituen: 1. kontzeptuak; 2. nori aplikatu baheketa?; 3. erabilitako tresna; 4. baheketaren hainbat arrisku; 5. protokoloa haurren ikuspegitik; 6. protokoloa profesionalen ikuspegitik; 7. protokoloa gurasoen ikuspegitik; 8. esku-hartzea.





1- Protokoloan agertzen diren kontzeptuei dagokienez, (neurogarapena, nahasmenduaren arrisku-egoerak, esku-hartzea, detekzioa, patologia, prebentzioa, baheketa, hautematea, *screening*, osasun arloa, sintoma, “osasuntsuak”, gaixotasuna). Tapiarentzat ez da egokia hezkuntzako protokoloak osasun arlotik hartutako kontzeptuok bere horretan trasladatzea eta prebentzio-eredua aplikatzea, “hezkuntza eta giza harreman eremuek beste eredu bat eskatzen dute. Batetik, oso eremu ezberdinak direlako. Eta bestetik, osasun eremuan bertan ere, eztabaida eta iritzi oso ezberdinak daudelako gai honi buruz”. Hasiera-hasieratik aipatzen dira protokoloan kontzepturik funtsezkoenak osasun arlotik mailegatutakoak: **“Baheketa, hautemate edo screening”**. “Bahetu” eta “hauteman”, sinonimotzat erabiltzen ditu protokoloak, baina hezkuntza-arloan, psikologoaren iritzi, ezin dira bahetzea eta hautematea baliokide edo sinonimo gisa erabili.

2- Protokoloaren arabera, baheketa 2, 3, 4 eta 5 urteko ume guztiei aplaiatu behar zaie, eta adinaz aparte, ume guzti-guztiak hautematea ez da egokia Tapiarentzat.

3- Baheketan erabilitako tresnen inguruan hainbat zalantza ditu Tapiak, batetik, baheketek bi talde egiteak -“frogak gaintitu dituztenak eta frogak gaintitu ez dituztenak”- arriskuak dakartzalako. Eta bestetik, bi talde horiek egiteko protokoloak eskaintzen dituen “tresna zientifiko objektiboak” zalantzan jartzen ditu. “Protokoloak erabiltzen dituen tresna espezifikokoak “eskalak” dira, ongi eta zehatz deskribatutakoak, baina bere sentsibilitateaz, fidagarritasunaz eta baliotasunaz, hau da, bere ezaugarri psikometrikoei buruz, aipamenik ez”. Protokoloak behin baino gehiagotan aipatzen du eta goraiatzen objektibotasunaren balioa, eta Tapiak, balio bezala oso eztabaidagarria jotzen du objektibotasuna, “nago item askok zalantzak sor ditzakeela ebaluatzailearengan, paradoxikoki, gaintitu nahi lukeen subjektibitateari bidea zabalduz”.

4-Protokoloa azterturik, baheketaren arrisku posible hauek ikusten ditu psikologoak:

- Kalte psikologikoa sasi positiboetan, alferrikako larritasuna sortuz.
- Sasi lasaitasuna sasi negatiboetan, behar liratekeen neurriak atzeratuaz.
- Diagnostiko eta geroko esku-hartze prozesuaren iatrogenia.
- Hautemandako kasuen diskriminazioa edo estigmatizazioa.
- Umeen eta gurasoen zailtasunak, programaren helburuak eta nondik norakoak ulertzeko orduan.
- Pronostiko argirik gabeko arazoek gehiegizko tratamendua.

Protokoloa haurren, gurasoen eta irakasleen ikuspegitik begiraturik, beste hainbat gogoeta kritiko egin zituen Tapiak: Haurren ikuspegitik begiraturik, 2 urterekin dagoeneko bi talde egitea bera -“itemak eskuratzen dituztenak eta eskuratzen ez dituztenak”- arriskutsua da adituarentzat. “Gaintitzen ez duten haurrek talde berezi bat osatuz gainera “tratu” berezi bat jasoko dute berehala, eta, gainera, gaintitzen ez dutenen artean ez da inolako bereizketarik egiten: larrienen eta ez larrienen artean adibidez: den denei aplikatzen zaie berehalako esku-hartzea, detekzio espezifikokoaren bigarren fasera pasa bitartean. Une hau ordea, oso delikatua da, oso”.

Haurren ikuspegitik, protokoloak beste arrisku bati zabaltzen dio atea: sasi positiboak. “Arazoak benetan dituztenekin aipatutako arriskuak handiak badira zer esanik ez sasi positiboak buruz, hau da, arazorik izan ez eta arazodunen artean sailkatutakoak buruz! Esan gabe doa, halako egoeratan, eta bai aurrekoetan ere noski, haurrengan eta gurasoengan sortzen den larritasuna, angustia eta sufrimendu psikikoa, handiak direla, eragin handikoak baina objektibatzen oso zailak!! Hala ere, sasi positiboaren egoerak, nire ustetan,

ondorio larriak dakartza beti”.

Laburbilduaz, umeengan eman litezken arriskuak honako hauek izan daitezke Xabier Tapiaren arabera: “Zuzeneko ondorioak: bere gurasoek eta profesionalak hainbeste baloratzen dituzten frogetan “huts egiteak” umeengan sor ditzaken sentipen isilak eta ia-ia klandestinoak: frustrazioa, sarritan erruduntasuna, lotsa, tristura eta batez ere nartzisismoaren zauria, auto-estimua!” Zeharkako kalteak ere aipatu zituen: “kalterik handiena, gurasoen mina, aurpegi asko duena: frustrazioa, **dezepzioa**, angustia, tristura, zauria, lotsa, haserrea, etsipena eta agian hortik aurrera bai gurasoengan eta bai erakundearen baitan txertatuko den irudia: haur “atzeratu” samarrarena, ezin duenarena, ahul samarra, gizagaixoa edo alferra dena, espabilatu beharko duena... urtetarako irudia! Bada, ordea, zehar kalte larriagorik: batetik, gurasoak dezepzionatu dituztelakoan, errudun sentitzearena, eta bestetik, **are eta larriagoa**, hurrek, gurasoen eta profesionalen baitan txertatzen den irudi “txar” horrekin **bat egitearena**, identifikatzearena, eta oso epe luzera gainera, bai behintzat gurasoen eta profesionalen begirada aldatzen ez den bitartean. Hau izan daiteke Pigmalion efektuaren ondorio larriena eta **eraginkorra**: umeek **bere** egiten dutela helduek beraiei buruz duten irudi kaskarra, “atzeratu” edo “gaizto” edo “alfer” irudia, eta irudi kaskar horren arabera jokatzeko hasiko direla, irudia baieztatuz”.

Protokoloa gurasoen ikuspegitik aztertzean, gurasoekiko anbiguotasun kutsua nabari dio protokoloari: “gurasoen baimenik ez dela behar dio alde batetik, baina bestetik familiaren lankidetzat aldarrikatzen du behin eta berriro”. Oron gainetik gurasoen “alferrikako larritasuna” ekidin behar dela nabarmentzen du Tapiak, baita larritasun horrek haurrengan dituen ondorioengatik ere: “Helduon hitz, irudi, mamu eta iragarpenok, bere barne-muin sakon eta intimoenetan egiten dituzte bere hurrek, are eta azkarrago eta sakonago zenbat eta maiteagoak izan helduak eta ilunagoak eta ezkorragoak mamuak eta beldurrak. Pigmalionen eragina biderkatu egin daiteke: guraso batzuk kuboen pilaketan entrenatzen dituzte bere seme-alabak etxean”.

Irakasleen kasuan, gurasoekin ikusten zuen anbiguotasuna areagotuta ikusten du Tapiak, “protokoloak esaten duenagatik baino, esaten ez duenagatik edo, esan gabe, adierazten duenagatik”. “Protokoloaren “filosofia” orokorrak, **irakasleen gaitasuna eta zeregina, bigarren mailan ipintzen duenaren itxura hartzen diot**, prebentzioari dagokionean: protokoloaren arabera, baheketaren protagonismo nagusia tresnak dauka, eskalek, eta ez irakasleen behaketa luzeak

eta eskarmentuak. Baheketa behaketaren gainetik. Irakasleak, eskalak betetzeko tresna lirateke, tresnaren tresna. Itxuraz, egun batzuetako une labur eta zehatz batzuk, eskala pasatzeari emandakoak, irakasleen urte osoko edo biko eta agian hiruko behaketak baino erabakigarriagoak bihurtzen dira. Irakasle batek, eman ditzake 5 ordu gutxienez egunero haur batekin, astetan, hilabetetan eta agian urtetan, eta hala ere, eskala pasatzen erabilitako denbora erabakigarriagoa bihurtzen da baheketa orduan, irakaslearen behaketa luzea baino. Eskalen balizko objektibotasuna, irakasleen ustezko subjektibotasunaren gainetik”.

Protokoloak objektibotasunaren eta subjektibotasunaren arteko “sasi-dikotomia” bat eta “hierarkia” proposatzen dituela uste du psikologoak. Objektibotasuna subjektibotasunaren gainetik ezarri dela ikusten du, subjektibotasuna txartat hartzen eta objektibotasuna ontzat. Haatik, hizlariaren irudiko, irakasleen balizko subjektibotasunaren eta frogaren balizko objektibotasunaren artean ez dago inolako dikotomiarik, “elkarren osagarri dira”; eta hierarkiarik egotekotan, “irakasleen eskarmentuaren, profesionaltasunaren eta behaketa luze, zehatz eta aberatsen aldekoa” izan behar litzateke, Tapiarentzat. “Ez dago irakasleen eta gurasoen behaketaren aberastasuna berdinduko duen frogarik, nahiz eta azken hauen ekarpena batzuetan guztiz beharrezkoa eta ezinbestekoa izan, baina osagarri gisa”.

Esku-hartzea, unerik delikatuena



Tapiarentzat, zailtasnak dauden kasuetan, esku-hartzeko unea da prozesu osoaren unerik delikatuena, eta aztergai dugun protokoloak hasiera-hasieratik esku-hartzearen garrantzia azpimarratzen badu ere, gaiaren inguruko argibideak faltan sumatzen ditu. “Kontraste handiegia dago bi fase hauen azalpenetan: baheketa fasea zehaztasunaz beteta batetik, eta esku-hartzeari buruz hain informazio urria eta eskasa bestetik: Nork erabakitzen du lehen esku-hartzea? Eta gerokoa? Noren ardura da esku-hartzea? Nork burutu behar du? Noiz hasi? Zenbat denbora? Egunero? Noiz arte? Gela barruan? Aparte? Zertan datza esku-hartzea? Zer landu behar da? Nola edo nolako metodologiarekin?”

Berehalako esku-hartzeari eragozpenak ikusten dizkio Tapiak, “Iana egiteko era konkretu batera eraman dezakeelako, estimulaziora hain zuzen ere, hainbestetan gorapatutako haurren globaltasuna arriskuan jar dezakeena”. Halaber, oso eztabaidagarria deritza esku-hartzea noiz jarri behar den martxan, protokoloak ematen dion erantzunari: ezarritako irizpidea bete bezain laster, hurrengo faseari itxoin gabe. Item solte batzuk ez betetzea ez dut uste esku-hartze zirkuituan sartzeko nahikoa motibo denik, aipatu ditugun arrisku nabarmenak kontuan hartuta.

Proposamenak

Kritikak egin ostean, protokoloari hainbat proposamen egin zizkion zailtasunetan dauden haurrak eta horien familiak artatzen urte askoan lanean diharduen psikologoak. Amuko



arrantza egingarria da Tapiarentzat. “Arazoak eta zailtasunak lehenbailehen detektatzeko edo hautemateko **ez dago zertan ume guzti guztien baheketarik egin, ez eta eskalarik pasa**; tresna horiek hain zehatzak eta objektiboak ez direlako, batetik eta bestetik, arriskuak onurak baino handiagoak izan daitezkeenez, detekzioa beste modu batera egin daitekeelako: ez dago zertan arrasteko arrantzarik egin”. “Nazioarteko prebalentzia datuek, zera diote: umeen %15-20k dituztela nahasmenduak. 15 umeko gela batean, 3 umek batez beste. Ez dago ez zaintzaile ez hezitzaile, 15 umeren artean benetan arazoak izan ditzaketan 3 ume horiek gogoan ez dituenik, erreparatu ez dituenik”. Tresnei edo eskalei protagonismoa eman beharrean, profesionalen ematearen aldekoa da psikologoa, “gurasoen gain, hezitzaileak direlako ume bakoitza ondoen ezagutzen dutenak. Formazioa eta eskarmentuaren poderioz, oso azkar atzematen dituzte “ondo” ez dauden umeak, sarritan hasiera-hasierako egokitzapen prozesuan bertan! Eta detekzio fase honetan hori da funtsezkoena: “ondo” ez daudenak, ondoezik daudenak atzematea, hau da, sufritzen ari diren eta besteak sufriarazten dituzten umeak. Eta ia inoiz ez dute hutsik egiten profesionalak. Ez naiz diagnostikoaz ari, bere ardura ez delako, baina diagnostikoa bera baino garrantzitsuagoa da, sentibera eta konpetentea den norbait, ume bat ondoezik dagoela jabetzea. Honatx, amuko arrantza!”.

Umearen esku-hartzea auzolanean egitea proposatzen du Tapiak, pluri-disziplinarki. “Baina benetako auzolanak, muga eta mugarrak argiak exijitzen ditu, bakoitza berean: hezkuntzakoak hezkuntzan, zaintzaileak zaintzan, arreta goiztiarrekoak arreta goiztiarrean eta gurasoak gurasotasunean; esku-hartzaile bakoitza berean baina elkarren errespetuzko eta parekidetasunezko **lankidetzan**. Koordinazioaren beharra hemendik dator.” Ikuspegi horretatik, adituen eta tresnen ustezko gehiagotasunak ez dauka inolako funtsik. Adituak eta tresnak, egon badaude baina **bizitzaren** mesedetan egon behar dute, eta bizi, bizi, umeak etxeetan eta haurtzaindegi edo eskoletan **bizi** dira. Protagonista nagusiak, **umeak, gurasoak eta zentroetako zaintzaileak eta hezitzaileak** dira. Jomuga ez da umea bere soiltasunean: arreta goiztiarra beraren ardatza ez da umea; jomuga, umeek familiarekin, hezitzaileekin eta beste umeekin duten harremana da”.

Hona beraz, Tapiaren iritziz, arreta goiztiarraren eta hezkuntzaren arteko harreman mota: “elkarren ezinbesteko osagarri, eta hala izanik, ezinbestekoa izango da auzolana, lankidetzaren, ezinbestekoa koordinazioa”.

MEITA
MAITIE

Ume-eramaileak eta Haziera
Portabebés y Crianza



Laura Gutmanekin topaketa bat **Zarautzen**

Hitzaldia, urtarrilaren 14an, 11etatik 14etara, Modelo aretoan

Zer gertatu zitzaigun haurretan eta zer egin genuen horrekin.

Gizakiaren benetako diseinuaren eta gure zibilizazioaren arteko distantzia.

Hogeita hamar urteik gorako lan-esperientzian, Laura Gutman banakook geure errealitate emozionalari aurre egiteko metodologia terapeutiko berritzaile bat osatzen joan zen, izan ginen haurren ikuspuntua kontuan izango zuen metodologia bat, gure barneko izatearen eta guri buruz amak edo zaindu gaituenak esan eta interpretatu izan duenaren arteko distantzia behaltzen laguntzen duen metodologia bat.

Giza biografia autoezagutzaren bidaia benetakoa da, bere burua ulertzeko desiatzen dagoen kontsultatzailearen eta profesional sentibera eta entrenatu baten arteko bidaia, gero zabaldu ahal izateko, hau da, gure ondorengoak maitatzeko gai izateko, aski maitatuak izan ez bagara ere.

Sarrerak erosteko (aurrez 40 euro, abenduaren 18tik aurrera 50 euro).

Informazio gehiago www.meitaimaitie.com webgunean edo **Zarauzko dendan**.



“Askotan uste dugu gizakia burua
bakarrik dela eta ume buru-handiak
ari gara egiten”

ELKARRIZKETA: IZASKUN TORRE

WALDORF ESKOLAKO IRAKASLEA DBH-N

Waldorf pedagogian oinarritutako Geroa Eskola Trokonizen ireki zutenean ametsa besterik ez zena egia bilakatu dute: DBHra zabaldu dute eskola, Eusko Jaurlaritzaren baimenarekin. Bertako bi tutoretariko bat —zientzia arlokoa— da Izaskun Torre elorriotarra. 14 urtez Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan eskolak ematen aritu ondoren, erronka berri bati ekin zion orain dela sei urte:

Bigarren Hezkuntzan ere Waldorf pedagogiarekin lanean hastea. Gustura dago bizitzan ari den prozesuarekin eta esperientzia asebetegarria ari dela izaten dio. “Testulibururik ez darabilgunez, sormena asko erabili behar dugu irakasleok. Guk badakigu zertara heldu behar diren ikasleak eta gure egitekoa da helburu horretara ahalik eta modu egokienean iristea”.

Nolakoa da DBHko ikasle baten eguna Waldorf eskolan? Zein berezitasun nagusi ditu?

Gure berezitasun nagusia da periodoka lan egiten dugula, Lehen Hezkuntzan bezala DBHn ere. Hortaz, hiru edo lau astean gai bera lantzen aritzen gara goizero, lehen orduetan. Adibidez, ni momentu honetan, DBHko 2. mailakoekin geometria lantzen ari naiz, irudi geometrikoen azalera eta perimetroen kalkulua eta antzeko kontuak. Periodo hau bukatutakoan ikasle horiek eduki dezakete historiako periodoa, edo fisikakoa, kimikakoa... eta horrela betetzen dugu ikasturte osoa.

Baina, egunero, klasea hasteko ikaslea jaso egiten dugu eta banakako harrera egiten diogu. Gure hartu-emana oso estua da eta ikasle bakoitzari ongi-etorria egiten zaio. Eta, jarraian, beti erritmoa lantzeko jarduera bat eginaz hasten gara, eta gorputzaren mugimenduarekin lotuta dauden hainbat ariketa egiten ditugu: pilotarekin jardueraren bat, oreka landu, erritmo ariketak musikaz lagunduta... ariketa horiek gela barruan

edota kanpoan egiten ditugu. Atal horrek gutxi gora-behera ordu erdi irauten du. Eta erritmoaren atal hori bukatzeko beti abestiren bat kantatzen dugu edo txirula jotzen dugu... Eta ondoren, astero, ikasle batek berari dagokion olerkia errezipitatu du. Astelehenean jaio den ikasleak astelehenean, asteartean jaio denak asteartean... Ikasle bakoitzak bere olerkia dauka, irakasleak oparitu diona. Hala, gelakide guztien aurrera irteten dira eta euren olerkia errezipitatu dute.

Gero, periodoka lantzen dugun klase printzipalaren ondoren, atsedena dute ikasleek eta horren ostean guk "ikasgai erritmiko" deritzegunak ematen dira: musika, talla, ingelesa, eskulanak, gorputz hezkuntza, euskara, etika...

Periodoka antolatzen dituzuen gai nagusi edo tronkal horiek nola lantzen dituzue? Metodologia zehatzen bat erabiltzen duzue?

Gai printzipal batzuk ditugu, ikasturtean zehar jarraian eta modu sakonean jorratzen ditugunak, eta

horri deitzen diogu guk periodoka lan egitea. Gai printzipal hori jorratzeko klasea beti aurreko egunean egingakoa gogoratuz hasten dugu. Gero, eduki berria sartzen dugu, modu esperimentalean.

Gaurko adibidea jarriko dizut. Gure helburua zen zirkunferentzien perimetroaren eta azaleraren formulak ondorioztatzea. Baina guk ez diegu ikasleei azaleraren (Πr^2) eta perimetroaren ($2\Pi r$) formula ematen, baizik eta euren egitekoa da hori ikertzea.

Adibidez, ondorio horretara iristeko zer egin dugu gaur? Bada, ikasleek etxetik hainbat objektu borobil ekarri dituzte: tapak, bizikletaren gurpila, uztaiak... Lehenik objektu horien perimetroak eta diametroak neurtu ditugu, eta ondoren, perimetroa zati diametroa egiten hasi gara, eta ikusi dugu objektu batzuen kasuan 3,2 ematen zuela, beste batzuen kasuan 3,1 edo 3,09... Hortik ondorio bat atera dugu: edozein zirkunferentzian perimetroaren eta diametroaren arteko zatiketaren Π zenbakia existitzen dela, eta nahiz eta zirkunferentzia handia izan, nahiz txikia izan beti proportzio



bera betetzen dela. Ni eskolara joan nintzenean zera esan zidaten: “Bada-go zenbaki bat ‘ Π ’ deitzen dena eta 3,1416 balio duena”. Beno, ba, guk ikusi dugu zenbaki hori existitzen dela prozesu logiko baten bitartez. Hortik gero ondorioztatu dugu zein den zirkunferentzia baten perimetroaren formula: diametroa bider Π edo $2\Pi r$ (diametroak bi radio dituelako). Eta horrela jakin dugu perimetroa zer den.

Gero Arkimedesez egin zuena egin dugu. Arkimedesez zirkunferentzia bat zeukan eta haren azalera kalkulatzeko, zirkunferentzia hura hainbat zatitan egin zuen eta lauki zuzenaren forma eman zion. Berak ez zekien zirkunferentziaren azalera kalkulatzeko, baina lauki zuzenarena bai (aldea bider bestea). Horrela konturatu zen zirkunferentzia baten azalera perimetroaren erdia bider erradioa zela. Eta perimetroaren ordez $2\Pi r$ ezartzen badugu, segituan ohartuko gara zirkunferentziaren azalera Πr^2 famoso hori dela.

Formulak eman beharrean, modu praktikoa, ikasleek eurek ondorioztatu ditzaten saiatzeko zere horetaz.

Gure helburua hori da. Ikasleei esaten badiezu zeintzuk diren formulak, lehenik ikasleek sinetsi egin behar dizute hori horrela dela, baina ulertu gabe zergatik. Gainera, gero, berehala ahaztu egingo zaie. Aldiz, horrelako lana eginda, alegia, behetik gorako prozesua eginda, eurei ikertzen uzten badiegu, ikasten dutena ez dute sekula ahaztuko. Izan ere, eurak lehengo matematikoen azalean ipintzen dira eta lehengo matematikoak heldu ziren bidetik heltzen dira gauza berberak ondorioztatzen.

Beraz, hor hiru aspektu lantzen ditugu: hasieran borondatea, ariketa praktikoa egiten ditugulako surretatuko dena oraindik ezagutu gabe; gero sentimentua, “Hau zer izango da? Zer esan nahiko du?”; eta azkenik pentsamendua, ateratzen ditugun ondorioen bidez gauzak nola diren ulertu dugunean.

Testulibururik edo bestelako bitartekorik erabiltzen duzue?

Ikasleek eurek sortzen dituzte euren

testuliburuak. Periodo bakoitzeko euren koadernoak egiten dute, ahalik eta edertasun handienarekin. Koadernoak txukun eta artez osatzeari garrantzia handia ematen diogu guk: kolore, errete, irudi... asko erabiltzen ditugu. Hala, kreatibitatea bultzatzen saiatzen gara. Batetik, ikasleen kreatibitatea: “Nola pasatuko dut gelan landutako hau guztia koadernora? Koloreak erabiliko ditut? Nola pegatuko dut?...”. Eta, bestetik, irakasleen kreatibitatea: ez daukagulako testulibururik jarraitzeko, eta beraz egun batetik bestera gauza asko prestatu behar ditugulako. Guk badakigu zertara heldu behar diren ikasleak, eta gure egitekoa da helburu horretara ahalik eta modu egokienean iristea.

Eta zein abantaila dakar, testulibururik erabili gabe, norberak bere koadernoak sortzeko?

Gure ikasleak izango dira zelabaitera etorkizunean mundu hau zuzenduko dutenak. Eta ez dakigu zeintzuk izango diren etorkizuneko erronkak. Beraz, gaitasun berriak landu behar dituzte gure ikasleak. Zentzu horretan, sormena lantzea garrantzitsua iruditzen zaigu eta uste dugu testuliburuak, era batera edo bestera, mugatu egiten gaituela: “Hau da dagoena eta ez dago besterik”. Gainera, testuliburuetan, azkenean, badakigu zer egiten dugun: azpimarratu egiten dugu inportanteena iruditzen zaiguna, baina ez dugu idazten, eta guretzat oso inportantea da idaztea, edertasunez, lumarekin, ortografia akatsik gabe...

Gai printzipalak periodoko jorretan dituzuela diozu. Lanketa hori egin ahal izateko irakasleok nola antolatzen zarete?

Lehen Hezkuntzan tutore bakarra izaten dute 1. mailatik 6. mailara arte. Baina DBHn jada ez da horrela. Baizik eta bi tutore gaude maila guztietarako. Ni zientzia arloko tutorea naiz eta Raimundo humanitate arlokoa. Horetaz, esan dezakegu DBH1etik 4ra bi tutore dituztela. Hala ere, ingeleserako beste irakasle bat dago, heziketa fisikorako beste bat, tallarako, musikarako... Aurten

“Ikasleei esaten badiezu zeintzuk diren formulak, lehenik ikasleek sinetsi egin behar dizute hori horrela dela, baina ulertu gabe zergatik. Gainera, gero berehala ahaztu egingo zaie. Aldiz, behetik gorako prozesua eginda, alegia, eurei ikertzen uzten badiegu, ikasten dutena ez dute sekula ahaztuko”

“Periodoko lan egiteak esan nahi du indarrak zerbaitetan zentratzea. Eta indarrak zerbaitetan zentratzen badituzte, azkenean lortuko dut ulertzea, eta gainera, askoz ere sakontasun handiagoarekin barneratuko dituzte gauzak”



DBH 1 eta 2 elkarrekin daude, 16 ikasle ditugulako orotara; eta baita DBH 3 eta 4 ere, zortzi ikaslerekin. Hala, goizeko lehen ordu horietan ni egoten naiz talde batekin eta Raimundo bestearekin. Ikasleen pertsona erreferentzialak gu biok gara.

Zergatik egiten duzue lan periodoka? Arrazoiren bat dago?

Lan egiteko modu hau nahita nahiezkoa da gaiak modu esperimentalean jorratu nahi baditugu. 50 minutuko klase bat baldin badaukagu, 50 minututan egin dezakeguna da formulak eman eta 1., 2., eta 3. ariketak egiteko eskatu. Hurrengo egunean berriz ere formulak gogoratu eta beste ariketa batzuk egin. Baina, guk modu esperimentalean egiten dugu lan. Horrek ikasleei gaien sartzeara eta inplikatzeara eskatzen die. Orduka egiteak ez liguke utziko gai bat sakontasunez lantzen. Gainera, gerta daiteke hasieran ikasle batek gauzak nola diren ez ulertzea, baina egunero-egunero gai berean murgilduz, azkenean guztiak sartzen dira gaien eta denek amaitzen dute landutakoa ondo ulertzen. Zergatik? Murgilduta daudelako gai batean, murgilduta buru-belarri!

Gainera, gero etxera joaten dira, han ere geometriaren kontu honekin atzera eta aurrera ibiltzen dira eta ideia berriak ekartzen dituzte gelara. Hortaz, gelan landutakoa kanpoan ikusten dutenarekin lotzen dute, eta hala, indarrak eta ahalegina biderkatu egiten dira.

Niri benetan oso zaila egiten zait ulertzea umeekin nola egin daitekeen lan 50 minutu ingelesa emanaz, 50 minutu matematika, 50 minutu euskara... Kasu horretan zer gertatzen da? Batzuek ez dakitela zer koaderno atera behar duten ere. Sartu orduko bukatu da klasea eta beste bat dator guztiz desberdina. Hortaz, egun batek bestera ahaztuta daukate aurreko eguneko. Eta, noski, neska-mutil batzuei izugarri kostatzen zaie gauza batean zentratzea, baina ez diegu horretarako aukerarik ere ematen.

Edozein kasutan, periodoka lan egitearen kontuan haur ere dagoeneko ez da hain berria. Unibertsitate askotan hasi dira horrela lanean.

Nik uste dut periodoko lan egiteak esan nahi duela indarrak zerbaitetan zentratzea. Eta indarrak zerbaitetan zentratzen badituzte, azkenean lortuko dut ulertzea, eta gainera, askoz ere

sakontasun handiagoarekin barneratuko dituzte gauzak. Gainera, uste dut lan egiteko era hau edozein umerentzat dela ona. Gaur ulertzen ez duenak akaso datorren astean ulertuko dute, eta denek gauzak beste sakontasun batekin barneratuko dituztelako. Eta logika batekin egingo dituztelako gauzak, ez dute egingo egiteagatik.

Jendaurrean hitz egiteko gaitasuna ere asko lantzen duzue.

Hori txikitatik lantzen dute hemengo haurrek. Alde batetik, bakoitzak tokatzen zaion asteko egunean bere olerkia errezitatu du beste ikasle guztien aurrean; eta bestetik, hiru hilabetean behin jai bat egiten dugu gurasoekin, irakasleekin, aiton-amonekin, lagunekin... eta ikasleek, beti, jendaurrean zerbait egiten dute: antzerkia, txo-txongiloak, poema bat errezitatatu... Eskenatokira igo eta denen aurrean jardun behar izaten dute. Jendaurrean hitz egiten ere ikasi egiten da eta iruditzen zait eskolan, sarri, arlo hori lantzea ahaztu egiten zaigula.

Ikasleak nola ebaluatzen dituzue DBHn? Azterketak badauzkazue?

Goizero gogoratzen dugu aurreko egunekoan egindakoa, eta hor ikasleek

nola parte hartzen duten ikusita, ebaluaziorako lehen heldulekua daukagu. Eurek badakite galdetu behar diegula, ekarri behar dugula aurreko egunean egindakoa gelara. Bestalde, periodo bakoitzeko ontzen duten koaderno bera ere hor daukagu. Koaderno nola eginda dagoen... zuzentasunez, txukuntasunez, edertasunez... hori guztia ere kontuan hartzen dugu. Eta, amaitzeko, probak ere egiten ditugu. Normalki, periodo bat amaitzen dugunean egiten dugu proba. Baina gerta daiteke periodo batek probarik ez edukitzea, ez delako beharrezkoa. Agian gogoratzearekin, koadernoarekin eta egunero eurekin daukagun harremanarekin nahikoa delako ebaluazioa egin ahal izateko. Esan bezala, periodo amaiera batzuetan probak egiten ditugun arren, ez daukagu hiruhileko amaieran-edo egiten diren azterketa-aldi horietakorik.

Familiek eskolan parte hartzen dute? Gurasoekin zer harreman mota daukazue?

Horretan ere LHko antzera jokatzeko dugu. Bigarren Hezkuntzan bi tutore gaudenez, bi periodo lantzen ditugunean gurasoekin bilera egiten dugu. Alegia, Raimundok ikasle-talde bat pasatu denean bere periodoarekin eta nik neurearekin, ikasleen gurasoekin elkartzen gara ikusteko gauzak nola joan diren eta kontatzeko ondoren etorriko diren periodoak zeri buruzkoak izango diren. Hortaz, 6-8 astean behin elkartzen gara haiekin. Gure helburua da gurasoek jakitea zer landu dugun, hurrena zer datorren eta nola ikusi ditugun ikasleak. Guretzat inportantea da gurasoek gure lan egiteko modua jarraitzea. Ikasle batzuek DBHn ez dute behar laguntzarik eta oso autonomoak dira, baina beste batzuek oraindik laguntza behar dute. Hortaz, inportantea da gurasoekin egotea, zelabaitera gure lan egiteko modua eta eurek kontatzen ditugutena ildo beretik joan daitezela.

HHn eta LHn naturarekin kontaktuan egoteari garrantzia handia ematen diozue. Berdin jarraitzen duzue DBHn ere?

Eskola hau zein inguruetan dagoen begiratzea besterik ez dago naturari garrantzia ematen diegula ikusteko. Edozein kasutan, HHn eta LHn naturarekin harremana estuagoa da. Gure ikasleak jada bizitzako beste

momentu batean daude. Izan ere, Waldorf pedagogian, zelabaitera, adinari egokitutako pedagogia jarraitzen dugu. Haurrak 0-7 urte bitartean bizi behar duena da mundua ona dela. Hortaz, aro horretan “familia” moduko zerbait behar du bere inguruan. Haur Hezkuntzan daudenak, azken batean, familian bezala daude: ogia egiten dute, mermeladak prestatu... 7tik 14ra bitartean edertasuna lantzen dugu asko. Izan ere, aldi horretan mundua ederra dela bizi behar du ikasleak. Horrexegatik, asko jorratzen dugu artea, musika, pintura, buztina... Eta jada 14tik aurrera, —hemen 16ra arteko ikasleak ditugu— landu behar dutena da mundua egiazkoa dela. Hortaz, naturarekin harremana inportantea da, edertasuna ere bai, baina nerabezeroan dagoen ikasleak beste ezerean gainetik jakin nahi duena da ea parean daukan heldua egiazkoa den edo ez. Adin horretan ikasleak denbora guztian irakasleei pultsoa botatzen bezala ari dira. Garrantzitsuena ez da zuk irakasle bezala esaten duzuna, baizik eta zu zarena. Eta zuk esaten baduzu gauza bat, eurek begiratu egingo dute ea hori koherentea den zure bizitzarekin.

Denbora guztian daude ikusten aurrean daukatena egiazkoa den edo ez. Horregatik, adibidez, etikako klasean pertsona berezien biografiak lantzen ditugu: Malala, Nelson Mandela... eta ikasleak txundituta geratzen dira: “Nola da posible pertsona honek hau egitea? Ni kapaz izango nintzateke hau egiteko? Jo, baina zelako gaitasunak dituen...”. Hortaz, DBHn nolabait ari dira ziurtatzen bizitza egiazkoa dela.

‘Teknofobo’ fama apur bat badu Waldorf eskolak. Hori hala da? Nola kudeatzen duzue teknologiaren erabilera nola kudeatzen duzue?

Erantzun aurretik gauza bat kontatu nahi dizut: Silicon Valley-ko guru denek, Microsoft, Google eta horietakoek, euren seme-alabak Waldorf eskoletara eramaten dituzte. Bitxia irudi dakiguke, baina horrek badauka izateko arrazoi bat: haur horiek ez dituzte ordenagailuak hartzen 14-15 urte izan arte. Eta horrek ez du esan nahi ordenagailurik ez dugunik erabiltzen, baina asko zaintzen dugu noiz eta nola. Gure ikasleek ere informatikako asig-natura daukate, baina DBH 3an hasten dira horrekin.

Eskola batzuetan LHn hasten dira

“Garrantzitsuena ez da zuk irakasle bezala esaten duzuna, baizik eta zu zarena. Eta zuk esaten baduzu gauza bat, eurek begiratu egingo dute ea hori koherentea den zure bizitzarekin”

“Silicon Valley-ko guru denek Waldorf eskoletara bidaltzen dituzte euren seme-alabak. Bitxia irudi dakiguke, baina horrek badauka izateko arrazoi bat: ez dituztela ordenagailuak hartzen 14-15 urte izan arte. Eta horrek ez du esan nahi guk ordenagailurik ez dugunik erabiltzen, baina asko zaintzen dugu noiz eta nola”



tabletak erabiltzen, baina gero zenbait ez dute eskuz idazten ikasten. Eta guretzat hori oso inportantea da. Izan ere, guk uste dugu eskuz idazte horrek, eskulanak egiteak bezala, eta beste hainbat gauza egiteak bezala, pertsonaren pentsatzeko gaitasunarekin lotura daukala. Askotan esaten da psikomotrizitate fin horrek lotura duela guk pentsatzeko jarraitzen dugun hariarekin. Eta ez badaukagu fintasun hori gure eskuetan, gure lanean, pentsatzeko orduan ere zailtasunak izango ditugu.

Guretzat inportantea da ikasleek ondo idazten ikastea, grafia politarekin, txukun, ortografia akatsik gabe... Beraz, uste dugu DBHko 3. mailara arte ez dutela ordenagailurik ezertarako behar. Adin horrekin, ordenagailuen historia eta hainbat programa erabiltzen ikasten hasten dira. Hemen-

dik irteten direnean erabiliko duten erreminta bat izango da ordenagailua. Baina, zer gertatzen da? Bada orain ikasten dutenak hemendik 20 urtera izango dugun errealitatearekin ez duela zerikusirik edukiko. Eta, beraz, presatua egon behar dute erronka berriei aurre egiteko. Baina guk argi dugu nahiz eta HHn tabletarekin hasi, gerora ez dutela besteek baino erraztasun handiagoa edukiko. Zeren erreminta teknologiko hauek gero eta intuitiboak dira eta gero eta errazago daude prestatuta edozeinek erabil ditzan. Umea ondo garatu bada eta oinarri ona badu, baliabideak izango ditu teknologia horiek ere erabiltzeko.

Artea asko jorratzen den arloa da Waldorf eskolan. Zergatik ematen diozue horrenbestearainoko garrantzia? Zer ematen die ikasleei eremu

artistiko hori lantzeak?

Bai, handia. Batzuetan uste dugu gizakia burua bakarrik dela eta ume buru-handi batzuk ari gara egiten, baina gizakiok badaukagu beste zati bat ere arnasketarekin lotua dagoena: sentimenduen arloaz ari naiz. Eta hirugarrenik, badaukagu eskuakin eta hankekin loturiko beste eremu bat ere, borondatearena, hain zuzen. Hortaz, pentsatzeaz, sentitzeaz eta egiteaz ari gara hitz egiten. Zer gertatzen da? Gure klasea antolatzeko moduak hori guztia hartzen duela barne. Sentimenduak, burua eta ekintza lantzen ditugu, badakigulako burua bakarrik landuz gero, desoreka gertatzen dela. Horregatik ematen diogu garrantzia handia arteari, zelabait orekatu egiten duelako pentsatzearen eta egitearen arteko dinamika.

Iruditzen zait askotan sentimenduen arloa kanpoan uzten dugula. Burua lantzen dugu, egitea ere bai. Baina artearen bidez orekatu daitekeen sentimenduen arlo hori ez. Batzuetan beste leku batean arnasarik hartu ezin izan duten umeak etortzen zaizkigu. Lehenengo egunetan agian espresatu ezinik ibiltzen dira, sentimenduak adierazteko arazoekin. Baina denbora emanez gero, segituan konturatzen zara nola hasten diren arnasa hartzen. Eta etxekoek esaten dizute: “Arnasa hartzen hasi da”. Ez badago arnasa hartzeko lekurik, oso zaila da ikasketetan aurrera egitea. Nik arnasa guk eskolan lantzen dugun guztiarekin lotzen du: artearekin, plastikarekin, musikarekin...

Arlo espiritualaren eremu horretan sartzen duzue?

Gauza bat argitu nahiko nuke: askok uste dutenaren kontrara guk ez daukagu inolako konfesio erlijiosorik. Hona edozein ikasle etor daiteke. Waldorf eskolak mundu osoan daude, izan daiteke arabe bat, afrikar bat, amerikar bat... Waldorf eskolara doana. Baina egia da guk gizakia osotasun batean ikusten dugula. Hortaz, guretzat trszendentzia bat badauka gizakiak. Eta zelabait gizakia bere orokortasun horretan landu nahi dugu, ez bakarrik aspektu batean. Eskolan mitologia desberdinak lantzen ditugu eta historiaren bitartez erlijiorik nagusienak: budismoa, animismoa, islama, kristau erlijioak...

hik hasi

29. monografikoa

10



Egileak: Alexander Barandiaran eta Iñaki Larrea
Mondragoan Unibertsitateko Humanitate eta Hizkuntza Zientzien
fakultateko irakasleak eta Hainegi ikertzaileko partaideak.

Ebaluazioa Haur Hezkuntzan: paradigma aldaketa



ESPERIENTZIAK

SCRATCH PROGRAMAZIO-LENGOAIA

Bideo-jokoak eta animazioak, ikasleek eurek sortuak

Donostiako Ibai Ikastolan, aurreko ikasturtean hasita, bideo-jokoak, animazioak eta istorioak programatzen dituzte Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek Scratch programaren bitartez. Helburua da, egunerokotasunean ordenagailuan erabiltzen diren aplikazio, joko, programa, etab-en atzean zer dagoen ikustea, eta norbera ere horien antzekoak sortzeko gai dela konturatzea.



Maider Aginagalde eta Amaia Cantera.

Tecnalian, robotika gaietan lan egiten duen Rakel Pacheco gurasoak egindako proposamen baten harira hasi dira Donostiako Ibai Ikastolan programazioa lantzen. Lehenik Tecnaliara bisita egitera gonbidatu zituen hainbat ikasle eta irakasle, eta ondoren, irakasleei programazioaren inguruan formazio-saio bat egitea proposatu zien. Maider Aginagalde eta Amaia Cantera Ibai Ikastolako

irakasleek adierazi bezala, abiapuntua argia izan zen: “Ordenagailuak asko erabiltzen dira bai eskolan bai etxean, baina normalean jada sortuta eta erabat eraikita dauden programekin aritzen gara — word, power point, jokoak... — . Ba al dakigu, ordea, erabiltzen ditugun programa horien tripak nolakoak diren? Nola sortu diren programa horiek?”. Galdera horiei erantzun nahian, Pachecorekin egindako formazioa heldulekutat

hartuta, LH-ko 5. eta 6. mailako ikasleekin, Scratch programaren bidez, bideo-jokoak, animazioak, istorioak... programatzen hastea erabaki zuten joan den ikasturtean eta horretan dihardute harrezkero. Irakasleek diote esperientzia oso asebetegarria ari dela izaten.

Scratch informatika-aplikazio bat da, nagusiki haurrei zuzendua, *interface* grafiko sinple baten bitartez ordenagailuen programazioaren

kontzeptuak ulertzeko eta probak egiteko aukera ematen duena. Informatika-aplikazio horren bidez haurrek programatu egin dezakete, aplikazio berriak sortu eta jokoak asmatu. Edozein ordenagailutan modu librean instalatu daiteke Scratch-a, eta ondoko helbidean dago eskuragarri, baita euskaraz ere: <http://scratch.mit.edu>. Gune horretan beste batzuek egindako lanak ikus daitezke, eta baita norbere sorkuntzak besteekin partekatu ere.

Ikasleentzat ez ezik, irakasleentzat ere erronka izugarria izan da programatzen ikastea. “Scratch programa umeentzat dago pentsatua, baina guk ere ikasi egin behar izan dugu. Ez geneukan inolako esperientziarik programazioaren kontu honetan. Ikasleekin hasi aurretik irakasle on artean probak egiten genituen, zer moduz moldatzen ote ginen ikusteko. Baina, gero, ikasle eta irakasle, guztiok batera joan gara bidea egiten, eta elkarrekin ikasten”, dio Aginagaldek. Laguntza gisa, *Informática creativa* izeneko gidaliburua erabili dute, Harvard Graduate School of Education-ek argitaratua.

Ofimatikatik programaziora

Astean behin egiten duten informatika orduan lantzen dute Scratch programa, ofimatikako beste hainbat arlorekin batera (word, power point, movie-maker...). Lehen ofimatikako gaiak bakarrik jorratzen zituzten informatikako orduan eta sekulako aldatuta antzeman dutela aitortzen dute irakasleek: “Hasieran nahiko gidatuta egin ditugu Scratch-eko eskolak, baina behin oinarritzko urratsak ikasita ikasleei euren kasa aurrera egiten utzi diegu, eta sekulako interesa erakutsi dute. Eurek sortzen dituztelako jokoak, animazioak... Oinarritzko urrats batzuk jakinda, segituan izugarritzko emaitzak ikusten dira eta horrek ikasleak motibatuta egiten ditu”, argitzen du Canterak.

Azkean batean, Scratch programaren oinarri-oinarrian, katu bat dago eta helburua da katu horri, mugi dadin, aginduak ematea. Adibidez, aplikazioa programatu egiten da teklatuko “x” tekla zapaltzean katuak salto egin dezan edo aurrera joan da-



din, edo abestu dezan, etab. Jarduera sinpleak eginez hasi ziren Ibai Ikastolako 5. eta 6. mailako ikasleak, baina apurka, gero eta ekintza konplexuagoak egitera igaro dira: “Hasieran, katua dantzan jarri genuen, soinuak eta musika sartu genituen, eskenatokiak aldatu genituen, pertsonaia berriak eraiki... Eta piskanaka pertsonaia gehitzen eta haien arteko elkarriketak sortzen joan ginen eta animazio txikiak egitera iritsi ginen. Gero, jokoak programatzen ere ikasi genuen. Labirinto bat egin genuen hasteko, eta gero, pilota-jolas bat”.

Bakoitza bere erritmo eta mailan

Hortik aurrera, baina, ikasle bakoitzak bere kasa edo taldeka jarduteko aukera izan du. Batzuk programazioa gustatu eta etxean ere aritu dira asmakuntza berriak egiten, eta oso maila konplexuetara iritsi dira. Hala kontatzen du Canterak: “Nire gelako ikasle batentzat sekulako aurkikuntza izan zen programa hau. Etxean asko aritzen zen eta egun batean etorri zitzaidan esanaz Windows XP sistema operatiboaren antzeko zerbait asmatu zuela. Zur eta lur geratu nintzen. Ni ez nintzen gai hori nola egin zuen ulertzeko”. Baina, gertakari hori bera ere oso aberasgarria iruditzen zaie irakasleei, ikasleek ikusten baitute irakasleak ez direla haiek baino gehiago eta zenbait gauzatan gutxiago dakitela: “Programazioaren kontu honetan gu euren mailan gaudela ikusi dute. Batzuetan guk lagundu diegu eurei eta beste hainbatetan

eurak izan dira guri aurre hartu eta egin dituzten ikerkuntzen berri eman digutenak: ‘Begira zer lortu dugun!’ esanaz etorri zaizkigu, sekulako poztasunarekin, eta hori guretzat ere oso asebetegarria da”.

Aginagaldek eta Canterak argi dute abantaila on hori baduela Scratch programak: bakoitzari bere erritmoan eta mailan jardutea ahalbidetzen dio. “Hasieran, gehienek guk emandako aginduak jarraitzen dituzte, baina gero, apurka, askatasuna ematen diegu eta eurak ere konfiantza hartzen joaten dira, probak eginez, eta zenbait kasutan, eskolatik kanpo ere honetan jardunaz”. Ikasleek sekulako aurrerapena egin dutela nabaritu dute irakasleek, eta are garrantzitsuagoa dena: oso gustura jardun dutela programazioa lantzen.

Beste gauza bat ere ikasi dute Scratch programaren bidez: kopiatzea oso garrantzitsua dela. “Ikasleei beti erakusten diegu ez dela kopiatu behar, baina hemen juxtu kontrakoa gertatzen da; ahal den guztia kopiatzea komeni da, egina dagoen horretatik abiatzeko eta hori oinarri harturik beste zeozer sortzeko”.

Informatikako eskoletan Scratch programa lantzen hasi direnetik, ikasleak askoz ere motibatuta eta aktiboago ikusten dituzte Aginagaldek eta Canterak. Izan ere, ikasleak eurak dira programatzen dutenak, zer egin nahi duten erabakitzen dutenak, helburuak markatu eta hori lortzeko bidea diseinatzen dutenak... eta ikertzeak, asmatzeak, sortzeak... askoz ere ekintzaileago egin ditu.

EKARPENAK 1

0-3 ADIN-TARTEKO HEZITZAILEEN PRESTAKUNTZA

Hezitzaileen emozioak humanizatzeko bidean

Hezitzaileen lanak barrutik zernolako inplikazioa eskatzen duen eta inplikazio horrek zer ondorio izan ditzakeen aztertu du Xabier Tapia psikologo klinikoak, 0-3 adin-tarteko haurrekin aritzen diren profesionalentzat Hik Hasik antolatzen duen bi urteko prestakuntzako sarrera-hitzaldian. “Hezitzaileak eta emozioak. Profesionalen inplikazioa” izeneko saioan, hezitzaileen bizipenak ulertzeko eta humanizatzeko bidean jartzea izan du xede: “Hezitzaileon sentipenak humanizatu egin behar ditugu. Gure buruari baimena eman behar diogu bizi ditugun hainbat emozio adierazteko”. Batzuetan lotsagarriak badirudite ere, emozioei duintasuna eman behar zaiela dio, ez direlako akats, eta sekulako baliabideak ere izan daitezkeelako hezitzaileentzat. Akaso, duten bitartekorik indartsuena adierazten dute.

Emoziorik ez badago, ezin da lanik egin. Are gutxiago, hiru urtez azpiko umeez ari bagara”, horixe esanez abiatu zuen Tapiak “0-3 prestakuntzako” ikasturte berria. Izan ere, haren esanetan, azaleratu egin behar da haur-eskoletako hezitzaileen lanean emozioek hartzen duten garrantzia, emozio horien zentzua, zergatia, sorburua... ezagutzeko; baina inondik inora ere ez emozio horien gaineko balorazioak nahiz juzguak egiteko edota sentipen horiek izatea ondo edo gaizki dagoen esateko. “Ez gara epaileak. Gauzak zergatik sortzen diren edo zer zentzu duten aztertu behar dugu. Gogoeta bat baino ez da”.

Lan egiteko modu desberdinak daude hezitzaileen artean, profesionalen artean, eskoletan... Baina, Tapiak dioenez, bada profesional guztiek aho batez onartzen duten errealitate bat, aintzat hartzen ez dena: haur txikiak lan egiteak dakarren gainkarga mental, emozional eta etikoa. “Hainbat zaintza- eta heziketa-lanetan, norbera baino ahulago den norbaiten beharrei erantzuteak gainkarga mental, emozional eta etiko handia dakar. Neurririk gabeko eginbeharren espiral batean murgilarazten du hezitzailea, eta neurria hartzen ikasten dute profesionalak, nola edo hala”. Psikologoaren hitzetan, haurren eta helduaren arteko harreman horrek eta zaindu behar horrek ez dauka amaierarik: “Haurrek gero eta gehiago eskatzen dute, zaharrek

bezala; bukatzen ez den espiral baten antzekoa da zaintza-lan hori. Hezitzaileek eta halako lanbideek horren berea duten lan emozionala guttiz deskribagaitza da, neurgaitza, kontatzeko zaila, ikusgaitza, eta topiko eta karikatura merkez betea”.

Testuinguru horretan, sekulako paradoxa gertatzen da hezitzaileen lanaren inguruan, Tapiaren aburuz: batetik, haur txikiak lan egiten duten profesionalen inplikazio emozionala goraiatu egiten da —“andereño hau zeinen jatorra den, zeinen goxoa, zeinen ongi tratatzen dituen umeak...”—; baina, bestetik, ez da aintzat hartzen horrek dakarren gainkarga, eta lilura moduko bat sortzen du —“zeinen polita hezitzaileen lana, ezta?, ondo pasatuko duzue egun gutzia umeekin...”—.

Hezitzaileen lana, ikusgaitz

Zer daki gizarteak haur txikiak egiten den lanari buruz? Argi dio Tapiak: “Ezertxo ere ez. Eta hezkuntzako profesional askok, are gutxiago. Goi-mailakoek ez daukate ideiarik ere zer den haur txikiak lan egitea”. Et a ezezagutza horren aurrean topiko ugari eraikitzen direla gaineratu du; “zeinen polita!, ondo pasako duzue..., zuek bai meritua...” eta antzeko laudorio eta lausenguak egiten direla dio, paternalismotik. Bestalde, haur txikiak aritzen diren profesionalen ahotsik ez dela entzuten adierazi du, eta ez dagoela ia ikerketarik lan horri buruz.



Beraz, psikologoaren irudiko, hezitzaileen lanak identitate lausoa du, ezin uztartu diren bi eskakizun egiten baitzaizkio: alde batetik, gurasoen zerbizua da, gurasoen etxeko eta laneko eginkizunak umea zaintzarekin bateragarri izan daitezen; bestetik, berriz, haurren zaintzarako edo heziketarako gunea da; hots, ez da gordeleku bat, eta baditu beste balio batzuk. Kontua da, ordea, bi helburu horiek bateragarriak ote diren. Hala dio Tapiak: “Nik ez daukat horren garbi. Askotan, haurtzaindegiaren defentsa egiten da emakumearen izenean, baina inork ez ditu aipatzen umearen eskubideak”.

Hori horrela, bada oztopo bat haur-eskoletan haur zein hezitzaileentzat: erritmoaren eta denboraren presioa. “Goizetan gurasoak datoz eta esaten dizute: ‘tira, hartu umea lanera joan behar dut eta’. Gero, umeak entregatzerakoan ere berdin: ‘txukun, garbi... ez dezatela aita-amek ezer desberdina ikusi...’. Siesta, jateko ordua, bigarren txanda... Urtebete-ko eta bi urteko umeei izugarriko presioa egiten zaiela iruditzen zait. Eta ez dut uste hori umearen izenean egiten denik. Zergatik presio hori umeari? Zer irizpide pedagogikoren arabera? ‘Ume, azkar jan behar duzu,

baina ez zuretzat ona delako, baizik eta beste aukeratik ez daukazulako’. Beraz, zergatik jokutzen dugu horrela hezitzaileok? Gure izatasunak eskatzen digulako, edo gurasoak haserretu ez daitezen?. Eta, horren ondorioz, akatsa dena balio bihurtzen dugu: ‘zure umeak ez du ondo jaten; azkarrago jan beharko luke; obeditu egin beharko luke...’, eta tranpan erortzen gara”.

Horren aurrean, etikoki garbi jokatzeko premia azpimarratzen du Tapiak, nahiz eta umeek ulertu ez. Hau da, uste du argi bereizi behar dela zer egiten den hezitzailearen, eskolaren, familiaren edota erakundearen ezintasunagatik, nahiz eta jakin egiten den hori umearentzat kaltegarria dela —“Ume, jasan egin beharko duzu, baina ez zuretzat ona delako, gure ezintasunagatik baizik”—, eta zer egiten den umearen onagatik.

‘Zaintza’ kontzeptuaren balio-gutxitzea

Zaintzeak oso esanahi sakona du euskaraz, Tapiaren esanetan; umeari kontu egiteaz ari da psikologoa, eta kontzeptu horren barruan sartzen ditu zaintza fisikoa nahiz psikikoa. “Zentzu horretan, esango nuke haurtzaindegiak haurrak zaintzeko lekuak

direla”. Izan ere, hezitzaileen eguneroko lanean, alde batetik, umeen zaintza fisikoa dago, gorputz-harremana eskatzen duena helduaren eta haurren artean; horren barruan sartuko litzateke haurrari jaten ematea, garbitzea, lo eginaraztea, janzea... Lan hori, Tapiaren hitzetan, agerikoa da, baina hutsala: “Goi-mailetako irakasleei aitortzen zaie matematika irakasten dutela, hizkuntzak, fisika... irakasten dituztela, baina haur txikiekin aritzen direnek zer egiten dute? Ipurdiak garbitu, jaten eman..., eta badirudi hori ez dela beste munduko ezer”. Zaintza fisikoaren txanponaren beste aldean, berriz, zaintza psikikoa legoke; horrek inplikazio afektibo handia eskatzen du, baina, psikologoak azaldu duenez, “zaintza mota hori ikusi ere ez da egiten; badirudi hezitzaileak berezkoa duela hori. Hezitzaileen lana arrunt bihurtzea, ezereztea ekarri du horrek”.

Gauzak horrela, oso zaila da hezitzaileen lana nolakoa den definitzea eta profesional horiek zer egiten duten azaltzea, Tapiaren iritziz: “Esan dezakezu, ‘umeari jaten ematen diogu; gero, garbitu egiten dugu, eta jolasean ibiltzen gara...’”; eta edonork esango dizu: ‘Eta?’. Benetan da zaila hezitzaileon lana deskriba-

EKARPENAK 1: 0-3 ADIN TARTEKO HEZITZAILEEN PRESTAKUNTZA

tzea. Izan ere, eginaren eta jakinaren eraginpean baino gehiago, izanaren eraginpean dago. Hau da, haur txiki-kiekiko lanean, garrantzia handiagoa dauka norberaren izaerak, egiten denak baino”. Horregatik, gurasoei kontuak ematerakoan askotan hezitzaileak emozioak azaltzen saiatzen direla dio Tapiak; ondo pasatu dutela, edota haurra oso pozik ibili dela adierazten ahalegintzen dira... Baina, dioenez, oso gaitza da eguneko jarduna deskribatzea, “beti egongo delako gehiago nabarmentzen den zerbait: umeak aurpegian atzamarkada bat duela, umea negarrez hasi dela, ez duela jan...”. Esaldi argigarri batekin laburbiltzen du psikologoak errealitatea: “Dagizuna dagizula, txarto egongo da”.

Gainera, hezitzaileen lana erabat lotu ohi da “emakumetasunarekin”, Tapiaren hitzetan. Haur txikiekin lan egiteak ez luke gaitasun profesional handirik eskatuko; nahikoa litzateke emakumeek berezkoak litzuketen balio eta dohainekin. Hau da, etxean amek egiten duten lana andereñoek egingo lukete haurtzaindegian. Eta ama izateko ez denez titulazio handiegirik behar, haurtzaindegiko andereño izateko ere ez. Horren guztiaren atzean, paradoxa hauxe legoke: gehiegizko balioespen teoriko eta topikoa, batetik; eta, bestetik, gizar-teak, guraso askok eta goi-mailatako irakasle zenbaitek ez aitortzea egiten dutena.

Umeen emozioei ez ezik, gurasoenei ere aurre egin behar

Haur-eskoletako profesionalak emozioz betetako umeak dituzte langai. Hor daude umeen larritasunak ere, eta, Tapiak aipatzen duenez, umeen larritasunak ez dira edonolako larritasunak; larritasun primitiboak dira, arkaikoak, sakonekoak, bortitzak... “Umeek ez daukate beren emozioak doitzeko gaitasunik, eta beren gordintasunean azaltzen dira”. Mina, tristura, beldurra, amorrua, oldarkortasuna... Umeek era askotako sufrimendua erakusten dute haur-eskolan. Eta psikologoak dio hezitzaileek gaizki bizi dutela umeen sufrimendua askotan. “Emozio horiek ondo har ditzakegu lasai bagaude, denbora

badaukagu, gu ondo harrapatzen bagaituzte... Baina, bestela, errepre-sioa eskatzen dute zenbait portaerak, nahiz eta hori ez izan umearentzat ona”.

Umeen emozioekin ez ezik, gurasoen emozioekin ere lan egin behar izate dute hezitzaileek, eta, Tapiaren arabera, era guztietako gurasoak daude, hezitzaileak eta haurrak bezalaxe: edozertarako prest direnak; dena desegoki iruditzen zaienak; kritikoak eta kexatiak; axolagabeak eta arduragabeak; lotsatiak eta ihesean bezala dabiltzanak...

Testuinguru horretan, zaila izan ohi da egiten den lanaren frogak azaltzea kanpora begira: “Goragoko mailetan, koadernoak daude, eskulanak daude... Badaude objektibagarriak diren elementuak; baina, haur-eskoletan, ez. Beraz, zailtasun bat badaukagu hor, gure lan onaren frogak azaltzeko orduan”.

Bestetik, Tapiak dio oso nekeza izaten dela haur-eskoletako profesionalentzat “gurasoen mehatxu-kutsuko presentzia” burutik kentzea. Nahiz eta gurasoak joan, arratsaldean itzuli arte beti presente daudela dio: “Haurrak atzamarkada bat baldin badauka, zerbait esan beharko diot, edo botaka egin badu, edo jan ez badu...”. Gurasoen presentzia hori fisikoa baino gehiago mentala dela gaineratu du, eta, batzuetan, presio-bide handia dela. Horren atzean, kontrolaren ideologia bat egon daitekeela uste du, eta testuinguru horren ondorioa dela hezitzaileen aintzatespen edo aitortza txikia: “Umeekin plazerik gabe ezarritako harreman bat ez da sortzailea, eta, lanean gozatuko bada, bi baldintza behar dira: batetik, barne-irudi ona; eta, bigarrenik, besteek gure lana aintzat hartzea. Eta, baldintza horiek izan ezean, ondoeza, mina eta kaltea sortzen dira”.

Ikaskuntzak gero eta goizago

Tapiak ohartarazi du lanbidearen defentsarako ideologia bat sortu ohi dela min eta ondoez horren aurrean, eta, horrekin lotuta, zaintzatik hezkuntzarako jauzia, berak horrenbeste kritikatzeko duena. Arrisku bat ikusten du hor: “Gure bakardadetik, ikusgaizta-

sunetik ihes egiteko, behagarriak diren objektuak bilatzen saiatzea eta pedagogizatzen hastea, besteek bezala egin nahi horretan: marrazkiak, abestiak, jokoak...”. Gero eta azkarrago hasita, ikasketaren aldeko lerratze defentsibo bat egiten dela ikusten du, “gurasoen aurrean askoz ere objektibagarriagoa baita marrazki bat erakustea, ‘gaur zeinen ondo pasa dugun’ esate baino”. Hortaz, ikaskuntzak gero eta goizago sartzeko joera ari da gailentzen, “aitorpen bila edo...”. Psikologoak dioenez, ordea, zaila da objektibitatea hezitzaileen lanean, umearekiko harremana delako euren lana, eta ez harreman horretatik sortzen diren produktuak.

Idealaren eta errealitatearen arteko talka luke aurrez esandako guztiak ondorio. Tapiak dio profesionaltasunaren ideala emozioak eta barnezirrarak isilik gordetzeko gaitasuna litzatekeela, emozioen kontrol-gaitasuna, oreka emozionala... Eta, azken batean, hezitzailea orojakina eta ahalguztiduna izatea. “Kontuz, baina, idealekin. Denetik dago errealitatean; gaziak eta gozoak; pozak eta ondorezak. Ekidin ezin guztiak”. Minberatasuna, sufrimendua, ezintasuna, lotsa, beldurra, etsipena, amorrua, haserrea, gorrotoa, depresioa, negarra... eta, batez ere, emozioek gainezka egiteko beldurra. “Sekulako kontrastea dago egin nahiko litzatekeenaren, egiten denaren eta egiten dela esaten denaren artean. Eta ondoeza dakar desfase horrek, ondoez intimo eta sekretua”.

Emozio eta sentipen horiek guztiak humanizatu beharra dagoela aldarrikatzen du Tapiak, duintasun osoa eman behar zaiela. Emozioek gainezka egitea ere gizatiarra delako, eta aukera bakarra, zenbait baldintzatan. “Kontua da, ordea, bileretan ez dela hitz egiten emozioekin lotutako gai horiez; baina, nire ustez, faktore eraginkorrenetakoa da hezitzaileen lanbidean. Helburua da sentiberatasun hori guztia txarrerako beharrean onerako erabiltzea”.

Lanbidearen ideologia, defentsan oinarritua

Aipatutako minaren aurrean, defen-

tsa-mekanismoak bilatu ohi dituzte 0-3 urteko umeeekin lanean aritzen diren profesionalak. Horien artean, ondoko hauek zerrendatu ditu Tapiak:

1. Kexa kolektibo etengabeak, lanari eutsi ezinaren adierazgarri: gurasoez, agintariez, lankideez...
2. Umeen hainbat emozioen uka-zio "argudiatua": negar egiten duen haurrari kasurik ez egitea, haurrei ez begiratzea, banatzeak sortutako larritasunaren garrantzia gutxiestea, etab.
3. Hiperaktibismoa: joko eta jarduera ugari egitea, haurraren jolasaren kaltetan.
4. Lan "teknikoa" edota "trebatzailea" modu agerikoagoan egitea: marrazkiak, ohituren lanketa, abestiak, autonomiaren trebakuntza, eskulanak, ordutegiak ikastea... Alegia, lan presentetagoa, objektibagarriagoa, "onargarriagoa".
5. Berdintasuna: haur guztiak berdin tratatzeko aldarria.
6. Pagaburuak asmatzea: haurren bat ("bihurria", "egoskorra", "gaiztoa", "betikoa", "hau ez da aldatuko!", "beti berdin!"), gurasoren bat, lankideren bat (berriena, bigunena, ahulena, ezberdina...), agintariren bat... "Taldea edo norbera zenbat eta ahulago, orduan eta handiagoa pagaburuaren beharra".
7. Erakunde-mailako defentsak: haur-taldeen antolakuntza, zurruntasuna, ordutegiak, helburu eta agindu pedagogikoegiak...

Psikologoaren hitzetan, ez dute batera laguntzen "sasidefentsa" horiek hezitzaileen eguneroko lanean, ez euren osasunean, ezta euren bizitzan ere, eta "ez dira kritikagarri; aitzitik, ulertu egin behar da zer dagoen horren guztiaren atzean". Zalantza egiten du lanak eragindako sintomak ote diren, ala gehiago den mututasunaren eragina: "Akaso, lanak areagotu egingo ditu sintoma horiek baina, bizipen horiek adierazteko lekuren bat balego, gutxitu egingo lirateke beharbada. Izan ere, sintoma horiek duindu egingo lirateke; ulertu egingo lirateke; erruduntasunak gutxituko lirateke...". Hala, 0-3 urte bitarte-

ko haurrekin aritzen direnek euren emozioez hitz egiteko leku bat izatea litzateke ideala psikologoaren ustez, kanpoko ikuskapen batekin, betiere. "Esaten ari naizen hau luxutzat har liteke, baina, nire ustez, beharrezkoa da guztiz". Gogoetarako espazio bat prestatu beharko litzatekeela dio, pentsagaitza pentsatzen saiatzeko, esangaitza esateko, onargaitza onartzeko eta ulergaitza ulertzen saiatzeko.

Egoera horren aurrean, zer egin?

Hainbat estrategia planteatzen ditu Tapiak:

1. Nork bere burua babestu: bizitza profesionala eta pribatua ondo bereizi; bizitza pribatua babestu; juzgu moralik ez egin; "egin behar tasunik" ez, "ahal tasuna" bai; erruduntasun-sentipenak ez hauspotu; norberaren gutxiespenak eta lotsa-sentipenak ez hauspotu. Azken batean, kontua ez litzateke emozionalki inplikatu behar den ala ez hausnartzea, ezinbesteko inplikazio emozionalarekin zer egin gogoeta egitea baizik.
2. Errealitatetik abiatu: emozioak badirela onartu, behatu, aipatu, plazaratu, izendatu, idatzi... Hori guztia, nork bere golkorako nahiz besteekin batera; idealismoak baztertu; eta lotsarik ez hauspotu.
3. Inplikazio emozionala lanerako tresna preziatu bihur dadin saiatu, hurbiltasuna eta urruntasuna kudeatuz haurrarekin, gurasoekin, beste profesionalekin eta erakundeekin. "Zentzu horretan, komenigarria da haurra eta haurraren onura bereizten jakitea. Hau da, profesionalaren egitekoa da haurraren desiren eta haurraren onerako den horren artean bereizketa egitea".
4. Gogoeta egin: taldean, ikuskapen bidez... eta hezitzailea, haurra eta teoria (helburuak, prestakuntza, eztabaidak...) bereiziz beti.
5. Helburuak eta praktikak egokitzten saiatu: idealen mentalitatea baztertu.
6. Lobby bat antolatu: profesionalena, langileena, erakundearena...

"Arrisku bat badaukagu: gure bakardadetik, ikusgaiztasunetik ihes egiteko, behagarriak diren objektuak bilatzen saiatzea eta pedagogizatzen hastea; alegia, besteek bezala egin nahi horretan, marrazkiak, abestiak, jokoak... erabiltzea, jolasaren kaltean".

"Kontua da ez dela hitz egiten emozioekin lotuta gai horiez; baina nire ustez, faktore eraginkorrenetakoa da hezitzaileen lanbidea. Helburua da sentiberatasun hori guztia txarrerako beharrean onerako erabiltzea".

EKARPENAK 2

'ONGI ETORRI IKASTOLARA' PROIEKTUA

Eskolan, kultura desberdinekin lanean

Donostiako bost ikastetxetan, “Ongi etorri ikastolara” egitasmoa jarri dute abian ikasturte honetan. Proiektu hau, Donostiako udaletxeko Kultura Aniztasun Bulegoko “eskola komunitateko kultura arteko elkarbizitzarako” programaren barruan txertatuta dago. Eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ere jasotzen du. Xedea, eskola-komunitatetik abiatuta beste herrialde batzuetatik datozen familien inklusioan laguntzea da. Hala, hainbat jarduera ari dira garatzen Egiako Aitor ikastolan eta M^a Reina eskolan, Intxaurren Hegoa ikastolan eta Intxaurren ikastolan, eta Gros auzoko Zuhaitzi ikastetxean; besteak beste, kultura arteko ikuspegia lantzeko, gurasoak, ikasleak nahiz irakasleak sentsibilizatzeko kanpaina; harrera-protokoloa diseinatzea; eskoletan kultura arteko ikerketa aurrera eramatea; kanpotik datozen familiei laguntzeko eta haiekin elkarlanean aritzeko programa; edota eskola-komunitatearen nahiz auzotarren inplikazioa lantzeko jarduerak. 2016-2017 ikasturtea bukatu ondoren, bost ikastetxeetako esperientziak bateratuko dituzte, eta jardunbide egokien liburu bat osatuko dute. Eskolan kultura-artekotasuna landuko duen foro bat antolatzeko asmoa ere badute, beste eskola batzuk ere anima daitezten ildo berean lan egitera.

Beste herrialde batzuetatik Donostiara iristen diren gehienak

seme-alabak dituzten familiak dira. Familia horientzat, eskola izan ohi da harrera-leku nagusia kasu gehienetan. Kanpotik etorritako familia askok D ereduan matrikulatzen dituzte haurrak, aukera horrek euren seme-alaben etorkizunean —lan-arloari nahiz bizitza sozialari dagokionez— eduki dezakeen garrantziaz jabetuta.

Hala ere, euren haurrentzat D eredia aukeratzen duten familietako helduek ez dute beren seme-alabek adinako aukerarik izaten euskal kulturari eta hizkuntzari bideratzen. Izan ere, oraindik ez dago beste herrialde batzuetatik datozen ikasleentzako eta haien familien inklusioa batera lantzen duen programarik.

Ingurune pribilegiatua da eskola, aniztasuna lantzeko. Batetik, ikasleak zein gurasoak parez pare erlaziona daitezkeelako. Bestetik, hiru belaunaldiren artean lanketa egiteko aukera ematen duelako. Eta, azkenik, auzoan zein hirian sorrarazten duen sarearengatik. Horregatik da horren garrantzitsua eskolan era horretako prozesuak abian jartzea, era berean, eremu horretatik kanpo ere eragin dezaten.

Beraz, “Ongi etorri ikastolara” egitasmoaren xedea beste herrialde batzuetatik datozen familien inklusioan laguntzea da, betiere, berdintasunezko bizikidetzara oinarrituta. Era berean, euskara eta euskal kultura ere babestu nahi dira proiektu honen bidez. Horretarako gakoak

**Lola Boluda
Guigó eta
Dorleta Mikeo
Zubillaga**

‘Ongi etorri
ikastolara’
proiektuaren
koordinatzaileak



hauxe da: kanpotik datozen familia horiei ikusaraztea euskara eta euskal kultura eurentzat hobeto bizitzeko aukera bat direla, eta ez gainditu beharreko beste oztopo bat. Horretarako, bai kultura hartzaileak eta bai gurera datorren kulturak sendo egon behar dute, batak bestearengandik ikasteko, norberak berea galdu gabe. Eta, esan bezala, hori guztia lantzeko eremu pribilegiatua da eskola.

Zer da kultura arteko hezkuntza?

Hala dio Eusko Jaurlaritzaren Harre-
ra Planak: “Ikastetxeek, gizartearen
ispilu direnez, hainbat jatorri eta
kulturatako ikasleak jasotzen dituzte.
Beraz, nahitaezkoa da hezkuntzan
kultura arteko ikuspuntua lantzea,
eta errespetuzko, tolerantziatzko eta
elkartasunezko balioak sustatzea.
Kultura arteko ikuspegiak, gainera,
kultura guztietara (norberarenera ere
bai, jakina) hurbilketa kritiko bat
egiteko nahia pizten duen hezkuntza-
eredu bat sustatu behar du; beste kul-
tura eta bizimodu batzuk ezagutzeko
eta haiekin harremanetan jartzeko
gogoia piztu behar du, inork ez dezan
pentsa berea besteenaren gainetik
dagoenik. Kultura arteko hezkuntzak
kontaktuan dauden talde guztiak
biltzen ditu, ez kanpotik datozenak
soilik. Elkar hobeto ezagutzea eta
hobeto ulertzea izango dira kultu-
ra arteko hezkuntzaren oinarriak.
Horren bidez, elkarbizitzarako arauak
praktikan jarriko dituen erreferentzia-

ingurunea sortzea lortuko dugu; des-
berdintasunak errespetatuko dituen
ingurune bat, hain zuzen”.

Euskaratik, harremanak hobetuz

Hala dio Eusko Jaurlaritzaren Harre-
ra Proiektu hau eskolan kultura-aniz-
tasuna lantzeko eta kanpotik datozen
famiak euskal kulturaren barneratzeko
pentsatua dago (bai Haur Hezkun-
tzan, bai eta Lehen Hezkuntzan ere),
kultura arteko eredu pedagogiko-
tik abiatua, eta eskola-komunitate
osoaren inplikazioaren bidez: zuzen-
daritza, irakasleak, lantalde teknikoak,
gurasoak, aitona-amonak, ikasleak
eta auzoko sare sozial eta eragileak.

“Ongi etorri ikastolara” proiektuak
laguntza eman nahi die hainbat
jatorritako familiei, bai ikastolan
matrikulatzen direnei eta bai beste
herrialde batzuetatik edo estatuko
beste autonomia-erkidego batzuetatik
datozeneri. Horretarako, funtsezkoa
da ikasturte bakoitzean beste he-
rrialde batzuetatik eskolara iristen
diren familia berrien parte-hartzeari
buruzko gogoeta egitea, eta auzoan
harremanak hobetzera eramango
dituen harrera-plana abian jartzea.
Aldi berean, euskararekiko eta euskal
kulturarekiko interesa piztu nahi dira.

Horretarako, bai irakasleek eta bai
ikasleek hainbat kultura ezagutu
beharko dituzte, eta haien gaineko
errespetua landu beharko dute. Lan
pedagogikoaren bitartez, balioa
emango zaie ikastolako kultura guz-

tiei, eta desberdinen arteko errespe-
tua jorratuko da, desberdintasunak
onartuz eta desberdintasun horiei
balioa emanaz.

“Ongi etorri ikastolara” proiektu-
aren barneko jarduera garrantzi-
tsuenetarikoa bat familia euskaldunen
parte-hartzea da. Familia horiek
laguntza emango diete beste herrialde
batzuetatik edo estatuko beste lur-
ralde batzuetatik eskolara etorritako
familiekin harremanetan jarriko dira,
Familia Laguntza programaren bidez.

Harremanak sustatuz, parte-hartzea helburu

Hiru puntutan laburbiltzen dira “Ongi
etorri ikastolara” egitasmoaren hel-
buruak:

1. Ikastolan izena eman duten eta
jatorria beste lurralde edo autonomia-
erkidego batzuetan duten familiei
laguntza ematea.

- Eskolako, auzoko eta hiriko
baliabideei buruzko informa-
zioa ematea.
- Auzoko eta eskolako parte-
hartzea sustatzea.
- Familia euskaldunekin egin-
go den harremanaren bidez,
bai eskolako eta bai auzoko
harreman-sareak zabaltzea.

2. Kultura arteko eredu pedagogiko
baten bitartez, ikastolan kulturen eza-
gutza lantzea eta balioa ematea.

- Kultura-aniztasunaren eta kultura

EKARPENAK 2: 'ONGI ETORRI IKASTOLARA' PROIEKTUA

“Ingurune pribilegiatua da eskola, aniztasuna lantzeko. Batetik, ikasleak zein gurasoak parez pare erlaziona daitezkeelako. Bestetik, hiru belaunaldiren artean lanketa egiteko aukera ematen duelako. Eta, azkenik, auzoan zein hirian sorrarazten duen sarearengatik”.

arteko egitasmo pedagogikoarekin lan egitearen inguruko sentsibilizazio-lana aurrera eramatea hezkuntza-komunitatean.

- Norabide askotako lanaren bidez, geletan parte hartzea. Irakasleen, ikasleen eta familien artean, kultura-aniztasunarekin zerikusia duten gaien inguruan gogoeta egiteko baliagarri izango diren bideak sortuz.
3. Beste lurralde edo erkidego batzuetatik ikastolara datozen familien artean euskara eta euskal kultura sustatzea.
- Familia Laguntza programa abian jartzea, familia euskaldunen eta beste herrialde batzuetatik datozenen artean.
 - Euskara sustatzea helburu duten kultura arteko jarduerak aurrera eramatea.
 - Hirian nahiz auzoan euskara ikasteko erraztasunak eskainiko dizkieten baliabideetara gerturatzeko, sare sozialen sorrera bultzatzea.

Hezkuntza komunitate osoaren inplikazioa

Proiektuaren helburua hezkuntza-komunitate guztiaren parte-hartzean egitea da; hau da, gurasoak, irakas-

leak, teknikariak, auzoko eragileak eta gizarte-lana egiten duten elkar-
teak inplikarazi nahi ditu.

Familia Laguntza programaren bidez, zuzenean beste herrialde batzuetatik datozen familiengan eragitea da xedea, eta, aldi berean, Donostiako familia euskaldun boluntarioak ere zeharka mugiaraztea, bai eta horiek kultura-aniztasuna ikusteko duten modua aldatzea ere.

Bestalde, irakasleengan, ikasleengan eta hezkuntza-taldean ere eragingo da zuzenean, eskola osatzen duten kulturen sendotze-lana egingo baita geletan; besteak beste, sentsibilizazio-lana, harrera-protokoloa, kultura arteko egutegiaren osaketa...

Finean, eskolako familia guztiakin egingo da lan, ikasturtean zehar gartuko diren jardueren puntualen bidez: kultura arteko topaketak, munduko jaiak, zenbait gai kultura-ikuspuntu desberdinetatik eztabaidatuko dituzten taldeak... Horrek, aldi berean, auzoan izango du eragina. Izan ere, kultura-artekotasuna lantzeko egingo diren jardueretan, presente egongo da auzoa.

Informazioa, prestakuntza eta jarduerak

“Ongi etorri ikastolara” egitasmoaren barruan, hainbat jarduerak daude zerrendatuta:

1. Guraso, irakasle eta talde pedagogikoarekin sentsibilizazio-lana gauzatzea.
 - Eskolako familiei, irakasleei eta talde pedagogikoari proiektuaren aurkezpena egiten zaie.
2. Familiei laguntza ematea.
 - Eskolara egokitutako harrera-protokolo bat eratzea eta abian jartzea.
 - Guraso guztiei Familia Laguntza programa aurkeztea. Familia euskaldunak nahiz beste herrialde batzuetatik datozenak programa honetan parte hartzea bultzatzea.
 - Familia Laguntza programa abian jartzea.

Familia Laguntza programan parte hartzen duten euskal familien egin-

kizun nagusia da eskolako nondik norakoen berri ematea etorri berri diren familiei —edota eskolan denbora badaramate ere laguntza behar dutenei—, eta auzoko eta hiriko baliabideak ere jakinaraztea. Era berean, Euskal Herriko kulturaren eta euskararen ezagutzaren bultzatzaile izatea dagokie familia horiei, eta auzoan duten sare soziala hobetzen saiatzea, inklusio-prozesu osoan zubi-lana eginez.

Familia euskaldun boluntarioek lau norabidetan egiten dute lan:

- Ikastolan, informazioa ematea eta inklusio-lana egitea: ikastolako funtzionamenduaren berri ematea horretarako premia duten familiei, oharren itzulpena egitea, ikastolatik iristen den informazioa nabarmentzea, bileretan itzulpena egitea, eta ikastolan parte hartzea motibatzea.
 - Auzoari buruzko informazioa ematea, eta inklusio lana egitea: auzoko baliabideak azaltzea beste herrialde batzuetatik etorritako familiei, hala nola, kultura-etxea, haur-txokoa, haurren gunea, bizilagunen elkarteak, musika-eskola, kiroldegia, igerilekua...
 - Auzoan harremanak zabaltzen laguntzea: hainbat espaziotan elkartuz, besteak beste plazetan, parkeetan, kultura-etxean...
 - Euskal kulturari buruzko informazioa ematea, eta inklusio-lana egitea: euskal kulturari buruzko informazioa ematea, hitzaldiak, San Telmoko programa...
 - Hizkuntzarekiko atxikimendua sustatuko duten familia euskaldunekiko harremanak bultzatzea, eta euskara ikasteko ikastaroei buruzko informazioa ematea.
3. Gelako esku-hartzea.
- Sentsibilizazio-lana aurrera eramateko bilerak talde teknikoarekin eta irakasleekin.
 - Kultura-artekotasuna landuko duen ikerketa soziodemografikoa.
 - Munduko festen topaketa. Munduko festen egutegiaren osaketa.
 - Beste herrialde batzuetako familiekin elkarlanean, munduko



ipuin en topaketa geletan.

4. Euskararen sustapena, beste herrialde batzuetatik etorri diren familien artean.

- Familia Laguntza programa abian jartzea.
- Euskara ikasteko ikastaroen eta jardueren berri ematea, eta euskara ikastera motibatzea.
- Ikastolako bileretan eta ekitaldietan euskararen erabilera zaintzea.
- Hirian izaten diren euskarazko jardueri buruzko informazioa eskura jartzea.
- Euskarazko ikastaroei eta hizkuntzarekin erlazioa eduki dezaketen baliabideei buruzko informazioa ematea.
- Euskaraz dagoen materiala ematea (hiztegi txikiak, diptikoak...).
- Familia euskaldunek motibazio-lana egitea egunerokoan, beste herrialde batzuetatik etorritakoe-kin, hizkuntza eta euskal kultura ezagutarazteko.
- Ikastolako eta auzoko ekitaldietan, hala nola bileretan, euskaraz zabaltzen diren oharretan, Par- ketarrak programan... itzulpen- lanak egitea. Horrek euskararen erabilera ez oztopatzea ahalbidetuko du, eta euskaraz ez dakiten familia horiek informazioa ulertzea, eta familia horiek hainbat jardueratan euskara entzutea.

Espero diren emaitzak

- Hezkuntza-komunitatea kultura-aniztasunaren gainean kontzientziaztea.
- Auzoko eragile, elkarte eta biztanleria kultura-aniztasunaren alde lan egitearen inguruan kontzientziaztea, bizikidetzaren sustatzeko oinarri modura.
- Geletan kultura-artekotasunarekin zerikusia duten edukiak sartzen hasia.
- Bai eskolan eta bai auzoan parte-hartzeari eta kulturei balioa emanaz, beste herrialde batzuetatik datozen familiak auzoaren barnean hartzea, horrek, era berean, euskal kultura ezagutzeko pausoa ematen lagun diezaien.
- Auzoan sare bat eratzea euskarazko jarduerak antolatzen dituzten eragileekin, jarduera horietan kultura-artekotasuna aintzat hartzea.
- Beste herrialde batzuetako familiak euskarara eta euskal kultura gerturatzea. Kulturaren parte direla sentiaraztea, hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko motibazioa senti dezaten.

Orain arteko balorazioa

Bi urte badira “Ongi etorri ikastolara” proiektua Aitor ikastolan abian jarri zenetik. Gainerako lau eskoletan —Intxaurren ikastolan, Intxaurren-

do Hegoa ikastolan, Zuhaitzi eskolan eta M^a Reina eskolan— berriz, 5 hilabete daramatza martxan, eta emaitzak oso onak ari dira izaten.

Intxaurren ikastolan, “familia laguntza” programaren barruan 16 familia ari dira elkarlanean. Zuhaitzi eskolan, programa honetan parte hartuko duten 26 familien aurkezpenak aurrera eramaten ari dira. Intxaurren Hegoan, ikastolako harrera jarraibideak osatzeko lenean dihardute eta M^a Reina eskolan, harrera jarraibideak osatzeko eta gurasoen sentsibilizazio lana egiten ari dira.

Aitor ikastolan, “familia laguntza” programaren barruan 34 familia ari dira elkarlanean. Beraien artean kultura arteko zubiak osatzen ari diren familiak dira, 17 familia kanpotik etorritakoak eta beste 17ak euskaldun familiak.

Jatorri desberdinetako familien iritziak, bai eskolan eta bai auzoan harremanak zabaldu dituzte, eta eskolan duten parte hartzea haundiagoa da. Beraien jatorrizko kulturei balioa emateak, bai gelatan bai gelatik kanpo aurrera eramaten diren jarduerak desberdinen bidez, euskal kulturarekiko eta euskararekiko interesa ere haunditzea ekarri du. Eta ikasturte honetan familia hauetako guraso asko euskara ikasten hasi dira eta auzoko eta ikastolako ekintza desberdinetan parte hartu dute.

GALDEIDAZU


ZER EGIN DEZAKEGU IRAKASLEOK IKASLEEN MOTIBAZIOAN ERAGITEKO?

Gauza asko egin ditzakegu ikasleak motibatzeke, baina, nire ustez, egin dezakegun lehendabiziko gauza haurrei eta gazteei entzutea da. Eta, entzutea diogunean, komunikazio-kanal askotatik entzuteaz ari gara; hau da, ikasleek ahoz esaten dutenari ez ezik, esaten ez dutenari ere arreta jartzeaz, edota keinuen, tonuaren, ahoskeraren... bidez adierazten dutenari ere erreparatzeaz.

Gainera, epaiketak ekiditea dakar horrek guztiak. Guk, gure egunerokoan, gauza asko ditugu egiteko gure irakasle-lanean, eta haur askori jarri behar izaten diogu arreta. Horren ondorioz, haurrak sailkatu egiten ditugu askotan, epaiketa horren bidez. Hortaz, entzute-prozesu horren barruan, oso garrantzitsua da, nire ustez, haur batek duen jarreraren eta haren izaeraren artean desberdintzea. Esan nahi dut haur bat ez dela mugitua, edo ez dela alferra... Haur bat gehiago mugituko da egun batzuetan, edota hainbat gairekiko interes falta izan dezake; baina, akaso, izugarri interesatuko zaizkio beste zenbait gai. Eta, entzutea esaten dugunean, haurraren interesgune horietan arreta jartzeaz ere ari gara: epaiketa saihestuz, ikasle-



NEREA REDONDO OTAMENDI TREBATZAILEA



horrek zertan daukan interesa aztertzeaz. Kontuan izan behar dugu pertsona guztiok jarrera desberdina daukagula gai guztien aurrean.

Egoki entzunda eta epaiketa saihestuz, motibazioaren inguruko oinarrizko koadroa hartuko dugu oinarriztat. Pertsona guztiok desberdinak garela eta une bakoitzean desberdin gaudela jabetuta, lau multzo hauetako batean kokatuko da gutako bakoitza gai edo egoera baten aurrean, bai eta haur edo nerabe bakoitza ere: “Nahi du, baina ez daki”, “nahi du eta badaki”, “ez du nahi eta ez daki”, eta “ez du nahi, nahiz eta badakien”. Funtzionatzeko lau modu horietan arreta jarrita eta haur bat une zehatz batean funtzionatzeko zer modurekin ari den kontzientzia izanik, hainbat estrategia erabil ditzakegu, haur horren motibazioan eragiteko.

Adibidez, haur batek egoera baten aurrean edo une jakin batean “ez dut nahi” jarrera baldin badauka, oso tresna baliagarria izan daiteke haur horri ardurak ematea, eta berak ere ahal duela sentiaraztea; haur hori ahalduz, alegia. Ikusarazi behar diogu baliagarria dela berak egin dezakeena edo ekar dezakeena ere.

Aldiz, haurra “ez dakit” jarrerare-

kin badago, garrantzitsua da haur horri erakustea eta tresnak ematea. Gerta liteke haur horren adin bereko beste kide gehienek gai zehatz horren inguruan jakitea; baina, ez dakien haur bakarria badago, irakatsi egin behar diogu, horretarako baliabideak eskainiz.

Era berean, garrantzi handikoa da dagoeneko egiten duen hori indartzea ere. Izan ere, berak indargune duen hori beste arlo batzuetara transferitu ahal izango du. Esate baterako, gerta liteke haur batek matematikan arretarik ez jartzea, baina *playmobilak* edo *legoa* asko gustatzea. Bada, kasu horretan, *legoa* erabil dezakegu zenbakiak lantzeko edota matematikako beste edozein arlo jorratzeko. Izan daitezke geldirik egotea kostatzen zaien haurrak ere; bada, mugitze-ko grina hori beste zenbait eremutan motibazioa lantzeko erabil genezake. Betiere, aipatu ditugun funtzionatzeko lau modu horiek kontuan izanik eta haurra motibatzeneko estrategiak landuz.

Prozesu horretan guztian zehar, oso garrantzitsua da, nire ustez, helburuak ikasleekin eurekin adostea. Eta zeregin horretan erabiltzeko oso tresna baliagarriak dira galdera irekiak. Guk haurrei galdera itxiak egiten badizkiegu, “bai” edo “ez” izango dira erantzunak beti. Eta, gainera, guk lortu nahi dugun helburu horri begira egingo dizkiegu galderak. Aldiz, galdera irekiak egiten badizkiegu, ikasleen esku uzten dugu erantzuna, ardura. Agian, denbora gehiago eskatuko du galdera irekiak egiteak, baina hobeak izango dira emaitzak, eta baliagarriagoak, haurraren motibazioan eragiteko. Izan ere, haurrekin helburuak adosteko eta helburu horiek lortzera begira konpromisoak hartzeko balio dute galdera irekiek. Adibidez, haur bat ingelesarekin motibatuta senti dadin nahi badu irakasleak, lehenik, zehazki zer lortu nahi dugun identifikatu beharko dugu, eta, horretarako, adostasun txikiak bilatu beharko ditugu haurrarenkin.

Hori guztia, alde batetik, mehatxuaren bidez, zigorraren bidez edo sariaren bidez egin dezakegu. Edota, bestetik, barne-indarra landuz egin dezakegu. Eta orain arte planteatu

ditugun tresna horiek guztiak barne-indarra sustatzeari begira egin dira. Azken batean, hortik etorriko da arrakasta. Izan ere, haur edo gazte horren barne-indarra pizten badugu, barne-indar hori bere bizitzako beste arlo guztietan erabiltzeko moduan izango da.

Amaitzeko, ezinbestekoa da, nire ustez, irakasleok lasaitasuna transmititzea. Hori guztia lasaitasunez egiten badugu eta epaiketak saihesten baditugu, haurrak berarekin gaudela sentituko du. Nire ustez, oso garrantzitsua da, irakasle garen neurrian, gure ikasleen *zale amorratuak* izatea. Alegia, irabazi edo galdu, gauzak era batera edo bestera egin, gure babesa dutela sentitzea. Gure jarrerak ezin du honelakoa izan: “ondo egiten baduzu bai, eta bestela ez”. Baldintzarik gabeko babesa eduki behar dute gure ikasleek. Ezinbestekoa da hori euren motibazioan eragiteko. Zera erakutsi behar diogu: “Ni naiz zure bidelaguna”. Eta horrek esan nahi du den horretan lagun egingo diogula ikasleari.

Hau guztia ikasle batekin banaka edota taldean aplika daiteke. Haur bat, segur aski, ez da beti desmotibatuta egongo, ez eta motibatuta ere. Entzutearen garrantziaz ari garenean, argi esan behar dugu entzute hori banakakoa nahiz taldekakoa izan daitekeela. Horretarako, interesgarria da irakasleak antena guztiak aktibatuta izatea, baina talde guztia une oro motibatuta edukitzea zaila izango dela jakinda. Adibidez, irakasle bat talde baten aurrean badago eta motibaziorik gabe dauden bi ikasle identifikatu baditu, bi horiei zerbaiten ardura eman diezaieke une horretan. Edota pare bat ikasle despistatuta ikusten baditu egiten ari direna ez zaielako interesatzen, lekua egin diezaioke haiek gustura egiten dutenari. Hori guztia indartzeko, ikasleen ekarpenak, galderak, zalantzak... erabil daitezke.


Askotan, haxe esaten dugu: “Irakasleok ezin gara egon haur bakoitzari begira”. Eta, irakaslea talde handi baten aurrean badago, hamahiru ikasle bideratuta baditu eta hiru ez, arreta hiru horiengan jarri beharko du, egiaz. Arazoa sor daiteke, ordea, hiru hilabetean arreta hiru horiengan soilik jarritz gero. Denborarekin, besteak ere

Haurra motibatzeneko, garrantzi handikoa da dagoeneko egiten duen hori indartzea. Izan ere, berak indargune duen hori beste arlo batzuetara transferitu ahal izango du. Esate baterako, gerta liteke haur batek matematikan arretarik ez jartzea, baina *playmobilak* edo *legoa* asko gustatzea. Bada, kasu horretan, *legoa* erabil dezakegu zenbakiak lantzeko edota matematikako beste edozein arlo jorratzeko.

Nire ustez, oso garrantzitsua da, irakasle garen neurrian, gure ikasleen *zale amorratuak* izatea. Alegia, irabazi edo galdu, gauzak era batera edo bestera egin, gure babesa dutela sentitzea. Gure jarrerak ezin du honelakoa izan: “ondo egiten baduzu bai, eta bestela ez”. Baldintzarik gabeko babesa eduki behar dute gure ikasleek. Ezinbestekoa da hori euren motibazioan eragiteko.

desmotibatu egin daitezkeelako. Eta, aurrez aipatu bezala, garrantzitsua da haurrei etiketak ez jartzea. Izan ere, ikasleek etiketa horiek erabiltzen dituzte euren artean ere, eta indartu egiten dituzte, gainera. Haur hau alferria bada, haur hori mugitua bada, eta haur hura bihurria, bizitzako arlo guztietan izango du etiketa horren zama. Azken batean, pertsona bat motibatuta sentitzeko entzun egiten zaiola sentitu behar du; aintzakotzat hartzen dutela sentitu behar du, eta hark egiten duenak balio duela ikusi behar du.

ARGITALPENAK



ELHUYAR ATLAS GEOGRAFIKOA ETA POLITIKOA

Elhuyar zientzia

ELHUYAR

DBHko ikasleentzat pentsaturiko atlasa da. Euskal Herriko zein munduko mapa geografiko eta politikoen, eta azalpen, datu eta taula erabilgarriekin dago osatuta. Toponimoekin jolastu eta ikasteko 3 joko biltzen ditu, baita inprimatu eta lanerako erabiltzeko moduko mapa mutuak ere. Webgunerako sarrera kodea liburuan bertan dago.



ZERUA GRIS DAGO

Liebana Goñi / Isak Martinez

PAMIELA

Album honetan adiskidetasun baten sorrera kontatzen da, generoak eragindako aurreiritzien kontrako aldarri gisa. Laguntasunaren aldeko proposamen sotila da. Liburuak zeru grisaren azpiko zelai zurian aurki daitekeen bizitzari gorazarre egiten dio. Neguko hoztasunean lagun bat izateak ekar lezakeen konplizitate koloretsua erakusten du.



ASTONAUTA

Ene Kantak

ENE KANTAK

16 kanta eta bideo biltzen dituen CD eta DVDa da, 2-10 urte bitarteko haurrentzat sortua. Nereak eta Enekok espaziora bidaia egiten dute eta handik Lurrean izugarritzko kutsadura dagoela ikusten dute, baina baita espazioan bertan ere. Asto baten mezua jasotzen dute espaziotik, zaborrak biltzeko laguntza eske. Hala, ilargira joaten dira.



ODOLAREN MINTZOA

Xalbador

ELKAR

Fernando Aire "Xalbador" hil zela eta liburu mitiko hau lehenengoz argitaratu zela 40 urte betetzen direnean, berriz plazaratu da, gaurkotua (liburua + CDa) eta Amets Arzallusen hitzaurreaz hornitua. Ipar Euskal Herriko euskaltasunaren lekuko aparta ez ezik, beharbada garai guztietako bertso idatzien gailurra litzateke liburu hau.



NESKAK ETA MUTILAK

Aingeru Mayor / Susana Monteagudo Duro

LITERA LIBROS

Munduan neska eta mutil asko daude. Milioika. Eta ez daude bi berdin. Badira ile luzea daramatenak, eta baita motza daramatenak ere. Belarritakoak daramatzatenak, eta ez daramatzatenak. Neska bakoitza neska da, bere erara. Mutil bakoitza mutila da, bere erara. Eta bai ederra norbera den bezalakoa izan ahal izatea!



JAUREGIKO SEKRETUA

Maribel Aiertza / Aitziber Alonso

IBAIZABAL

Zergatik egin behar izaten da beti nagusiei sudur puntan jartzen zaiena? Liburuko protagonistaren amak erabakitzen du oporrak Otxanten igaroko dituztela aiton-amonak zaintzen. Aspertu egingo dela uste du protagonistak, jauregiakoak euren ume bereziarekin joango direla jakiten duen arte. 10 urte-tik aurrerakoentzako liburu da.

PROPOSAMENA

TRIBUAREN BERBAK

Eskolan, soziolinguistika langai

'Tribuaren berbak' telebistako saioa ikastetxeetan erabiltzeko egokitu du Kike Amonarriz soziolinguista buru duen taldeak. Helburua da ikasleek errealitate soziolinguistikoa ezagutzea eta gogoeta egitea. ETBn 60 kapitulu eman zituzten, eta horiek hamar sekuentzia didaktikotan bildu dituzte orain, eskoletan lantzeko. Materiala DBHrako dago pentsatua, baina azaldu dute bestelako mailetan ere erabil daitekeela —Batxilergoan eta Unibertsitatean, adibidez.

Aspalditxo ohartu ziren *Tribuaren berbak*-en sortzaileak saioa eskoletan erabiltzen ari zirela; alegia, hainbat irakasleek telebistako programak jartzen zizkietela ikasleei. EITBren eta Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioaren babesarekin, ikus-entzunezko material hori material didaktiko bihurtu dute orain. Konpetentzietan oinarritutako materiala da, talde-lana eta erronka komunikatiboak ardatz



Azaroaren 3an egin zuten aurkezpena jendaurrean, Koldo Mitxelena kulturunean.

dituena. Aholkularitza didaktikoa Josune Zabala soziolinguistak eman du eta Iñaki Zapirainek koordinatu du proiektua. Material birtuala da *Tribuaren berbak*-ena, eta Interneten eskuragai dago, ondoko helbidean: www.eimakatalogoa.eus/20962/tribuarenberbak.

Nola erabili material hau?

Ikasleek beren errealitate soziolinguistikoaren gaineko gogoeta egiteko eta praktikan murgiltzeko aukera ematen du *Tribuaren berbak* material didaktikoak. Baina horrez gain, eleaniztasunaren ikuspegitik euskararen aldeko jarrera aktiboa sustatzeko ere bide bat eskaintzen du. Eduki soziolinguistikoak lantzeko tresna sekuentzia didaktikoa denez, helburu komunikatiboak proposatzen dira azken bururako, eta hori guztia

gauzatzeko egitura kooperatiboak baliatzen dira. Hala, webgunean zehazten denez, ikasleak taldean ikasiko du bera inguratzen duen errealitate soziolinguistikoa interpretatzen, bere ikuspegia osatzen, eta euskararen eta eleaniztasunaren aldeko jarretara nor bere moduan iristen; baita hori guztia komunikatzen ere.

Hala, hiru ardatz nagusiren bueltan lan egingo da material honen birtualitatez: 1. Eduki soziolinguistikoak: soziolinguistika arloko ezagutza eta praktikak; 2. Helburu komunikatiboak: gaitasun komunikatiboak (ahozkoak eta idatziak); 3. Talde kooperatiboak: talde-lanean aritzeko trebetasunak. "Sekuentzia didaktiko guztietan proposatzen dira bi bide: alde batetik, eduki soziolinguistiko jakin bat lantzea (hizkuntzaren

erabilera oro har, erregistroen arteko ezberdintasunak, aisialdian euskararen erabilera...), eta, bestetik, lanketaren emaitza gisa xede komunikatibo bat gauzatzea (jendaurreko aurkezpena, hiztegi eleanitza, gaiari buruzko debata...). Bide horietan aurrera egiteko talde kooperatiboe-tako teknika hainbat balia ditzaten proposatzen zaie ikasleei". Hiru ardatzak langai direnez, ebaluazio-gai ere izango dira. Lan-koaderno guztietan ezarri dira hiru ardatzei lotutako ebaluazio-irizpideak prozesuaren garapena zer-nolako izan den neurtzeko banaka, talde txiki edo handian.

Orotara hamar sekuentzia didaktiko garatu dira, oinarri gisa *Tribuaren berbak* programatik ateratako bideo-atalak hartuta. Bideo horiek programaren zati aukeratuak dira, baina hala nahi dutenek saioa osorik ikusteko aukera ere badute.

Materialetarako aukeraturako helburuak eta gaiak, ikasleekin eurekin lotura dutenak dira. Ikasleek beti izango dute daturen bat edo iritziren bat emateko aukera. Material bakoitzaren lanketa erraztuko duten adibide, eduki eta ariketekin ere hornituko da. Sortzaileen esanetan, material honek gaiarekiko interesa eta pasioa piztu nahi du ikasleengan, telebista ikusleen artean piztu eta sortu nahi izan duen —eta duen— bezala.

Programako bideo-atalez gain,

bestelako material osagarriak ere erabiliko dira gaiaren gaineko hipotesiak eraikitzeko, informazioa bildu eta antolatzeko, datuak deskribatu eta interpretatzeko, iritzia erkatzeko, ezagutza berria eraiki ahal izateko, etab.


Nola dago antolatuta?

Webguneko hiru gunetan aurki daitezke material hau erabiltzeko beharrezko guztia: sekuentziak, lan-koadernoak eta irakaslearentzako gida didaktikoak.

Sekuentziak atalean klik eginda, material hau osatzen duten 10 sekuentzia didaktikoak aurkitzen dira. Landu nahi dena aukeratu eta jardueretara joanda, lanean hasteko moduan izango da erabiltzailea.

Bestalde, sekuentzia bakoitzaren osagarri gisa, ikasleentzako lan-koadernoak daude *lan-koadernoak* atalean. Landu nahi den sekuentziari dagokiona deskargatu behar da. Ikasleek Google Drive aplikazioa erabiltzen badute, dokumentuaren kopia bat egin dezakete eta beren profilean gorde, saretik lan egiteko.

Azkenik, *gida didaktikoak* atalean, irakasleentzako gidak daude. Sekuentzia bakoitzak bere gida dauka eta horiek ere saretik deskargatzeko moduan daude. Gida horietan jarduerak gauzatzeko azalpenak aurki daitezke, baita irakaslearentzako informazio osagarria ere.



TRIBUAREN BERBAK

ZER DA?

Material didaktiko birtuala.

ZEIN XEDE DU?

Ikasleek errealtate soziolinguistikoa ezagutzeko eta haren inguruan gogoeta egitea.

NORI ZUZENDUA DA?

Materiala DBHko ikasleengan pentsatuta sortu da, baina bestelako mailetan ere erabili daiteke: Batxilergoan eta Unibertsitatean adibidez.

NON ESKURA DAITEKE?

www.eimakatalogoa.eus/20962/tribuarenberbak

NOLA ERABIL DAITEKE?

Webgunean sartu eta bertako hiru atal nagusiak erabiliz: *sekuentziak*, *lan-koadernoak* eta *gida didaktikoa*.

ZEIN DIRA 10 SEKUENTZIA DIDAKTIKOAK?

1. Euskararen tamaina
2. Zergatik ez dugu egiten?
3. Euskal Babel
4. Batua eta euskalkiak
5. Jolas gaitzezen euskararekin!
6. XXI. mendeko euskara
7. Jendaurrean
8. Eskolaz kanpo, aisian aise!
9. Garunetik teknologiarara, zientzia bidelagun
10. Eta guk, zer?



ATZEKO ATETIK



GELARA!

ANGEL OIARBIDE GURE ESKU DAGO

Jolas garaia da, sei urte ditut eta ikasgelara hurbildu naiz arnasestuka, amak hamaiketarako prestatu didan mokaduz akordatu naizelako batbatean. Irakaslea atean da eta alboan dagoen bankuan eseri naiz, oinak zintzilik, *txorizo pamplona* bokata irensten. Gainontzeko ikaskideekin lanpetuta ibili naiz ordura arte, zuhaitz artean sortua dugun txabola atontzen aritu baikara, eta hamaiketako bukatu aurretik, hainbat dira nekatuta inguratu diren ikaskideak ere.

Irakasleak galdetu digu: “nekatu al zarete jada?” eta gehienek baietz. “Deituko ditugu gainontzekoak orduan?”, eta aste horretan misio horretarako izendatutako arduradunek eskola inguru guztiak gurutzatuko dituzte “gelaraaa!!!” oihukatzen duten artean.

Batxilergora iritsi arte txirrinaren soinu desatsegina ezagutu ez duen

belaunaldikoa naiz ni; Hernaniko Langile Ikastolan jolas garaiak geuk hasi eta bukatzen genituen irla pedagogiko horretakoa hain zuzen ere. Pupitre indibidualari beldurra geniona, talde-lanean hazi egiten ginela bagenekielako. Testu liburuak oso berandurarte zer ziren ere ez zekiten horietakoa, guk lan-tratoak egiten genituelako, ikasleen artean lehendabizi, irakasleekin ondoren.

Oroitzen dut, lurtean esertzen ginela, borobilean, bakoitzak etxetik ekarritako kuxinetan. Baina oroitzen dut behin, ikaskide batek kontzientzia hartu zuela eta beraz gela osoaren aurrean adierazi, irakaslea aulkibatean esertzen zela. Irakasleari esan zion, modu salatzaile eta mesfidatian, eta hark galdetu zigun ea zer iruditzen zitzaigun hori, zergatik ote zen. Han ikasi genuen hierarkiaren esanahia lehendabizikoz, eta handik aurrera, nahi zuenak aulkia hartu ahal izan zuen eserleku. Parez pare


sentitzeko-edo.

Astero (gehiagotan ez bazen), tarte bat eskaintzen genion taldeari. Honek harekin izandako haserreari, bestea mindu izanari, borrokatu izanari. Eta hor ikasi nuen, kolpeek adina min egin zezaketela hitzek, defendatzea zilegi zela, baina batikbat, denok genuela taldean gertatzen zen ororen ardura.

Gaur egun hala ere, atzera begira jarrita, nahiko utopikoa zait jasotako hezkuntza molde hori, ez dakit ez ote dugun guk geuk ere oroitzen bakoitza azukretu egungo hezkuntza sistemaren gabezien aurka; ez dakit ez ote dugun gure eskolabizipen perfektuekin alternatibarik badagoela frogatu nahi, baina egia dena da, eskola garaiek gordetzen dituzten ohiko traumak ukatu gabe, itzuli egingo nintzatekeela tarteka hara, txabola hartara, txorizo bokata eskuan, gelara itzultzeko gogoia sartu arte.

Antolatuko liburua

Eraman etxera **Jakoba Errekondoren** jakintza
puntako **8 marrazkilari** hauek umorez komiki bihurtuta



EROSTI 101 DERRIKO
KOMIKI LIBURUA KOLORETAN



19'50€

18€

(erosten duzunean)

ANTOLATU KOMIKHITZALDIA ZURE HERRIAN

Landareen inguruko gaiak
azaltzen ditugun bitartean,
komikiak sortuko ditugu,
zuzenean!

☎ 943 371 545

www.argaia.eus/denda
edukia@bizibaratztea.eus

ARGIA
www.argaia.eus

**BIZI
BARATZEA**
www.bizibaratztea.eus

Euskal Herritik...



...Suomira

Finlandia

ko Hezkuntza Sistema eta eskolak ezagutzeko
bidaia pedagogikoa

- * Apirilaren 17an, BILBOtik HELSINKIra
- * Apirilaren 22an, HELSINKItik BILBOra



- * Hezkuntza Sistema ezagutzeko hitzaldiak
- * Lau hezkuntza zentrotara bisita (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza)
- * Irakasleen prestakuntzarako Unibertsitatera bisita

Informazioa eta izena ematea: www.hikhasi.eus